

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2010eko ekainaren 25a  
282. zenbakia. 21. urtea



IÑIGO MANTEROLAREN MARGOLANA

## Soineko berria du Karkarak

Goitik behera aldatu dugu gure aldizkaria, zuentzat erakargarriago egiteko. Danel Agirre zarauztarrak egin digu gaur estrainatzen dugun diseinua.

**05**

**Herriko kontuak**  
Wifia herrian

**12**

**Aiako berriak**  
Ubegungo garbigunea

**18**

**Elkarrizketa**  
Iosu Esnaola

**+**

**Gehigarria**  
Festa programak

Dena  
astiroago  
doan garaian



# Gipuzkoa, bizkor

## Donostiako Bigarren Ingurabidea



Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihestidea "berria".

Azken bertsioan 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihestidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoenak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



282.

### karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**

Mikel Aranzabal,  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Orioko festa-**

**programaren diseinua**

Saioa Perona

**Testuen zuzenketa**

Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako**

**laguntzaileak**

Jon Agirresarobe,  
Jon Ander Azpiroz,  
Itziar Barrenetxea,  
Anjel Del Hoyo,  
Ekain Lizarralde,  
Aitor Manterola eta  
Ione Zinkunegi

**Laguntzaileak**

Jokin Salsamendi

**Diseinua**

Danel Agirre Lertxundi

**Banatzzaileak**

Ekiñe Miralles eta  
Goñuri Unanue (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.300 ale

Karkarak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

# Ahizpa txikia zaindu behar dut gaur arratsaldean

1

Nire aitak esan dit gaur lagunduko lone?  
Eta nik pentsatu dut "zer da gaur, ai ene!"  
Nahiko du nik zaintzia naizelako eme.  
Baina niri esan dit nahiz ta euki bi seme.

2

Otarkekoa jan du koskaka-koskaka.  
Eta gero parkera goaz tipi-tapa.  
Ahizpa zaintzia zail da bihurria da ta.  
Gaur aitari eskatu behar diot soldata.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

**Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

**Iragarkia behin jarrita**

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko, karkara@karkara.com-era idatzi edota Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20).  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie.

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

**Eusko Jaurlaritza**  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Homaren beste aldeko oihartzunei

Konponbide zaila duten eta oso-oso modu ezberdinean ikusten ditugun gaiak alde batera utzita, eta Orioko hondartzako arazo konpontzen laguntzeko asmoz:

Zoritxarrez, paisaiaren edertasuna oztopatzen duen horma baino askoz gehiago da putomuroa. Lehen, ibaitik zuzenean itsasora joaten zen zikinkeraren zati handi bat hondartza aldera bideratzen duelako. Ba al dakizue, urrutira joan gabe, pasa den astean uretatik atera behar izan genuela, urertza oilaskoen tripaki, izter eta hankaz josita zegoelako eta kiratsa jasanezina zelako?

Eta hondartza inguruko uraren kalitatean ez ezik, hondarraren banaketan ere eragin zuzena du putomuroak. Egin zene-tik, norbaitek ikusi al du berriz Orioko hondartzan marea beheran, eskuinaldean, egiten zen hondartza? Orain arte sekula ikusi gabeko zenbat arroka atera dira, hondar faltan biluzik geratzen ari direlako? Eta hondartza zergatik dago orain hautsez eta harritzoz josita? Eta urertzean zergatik egiten da aldapa lehen baino errazago eta handiagoa? Eta hor astero-astero hondar tonak eta tonak ateratzek nola eragiten du?

Inpaktu estetikoak ez ezik, inpaktu ekologikoa ere izan du putomuroak. Hura eraikitzeak aurreikusitako zitutzenak baino gehiago? Gaizki egin zuten inpaktu ekologikoa aurreikuspena?

Pentsatu nahi dut Udaleko alderdi politiko guztiak daudela kezkatuta gaiarekin, eta guztiak jokatu dutela arduraz arazoa konpontzeko. Eta, jakina, prest gaude norabide horretan guztiakin elkarlanean ari-tzeko. ■ **Iñigo Fernandez**

## Gutunerako oharak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskura entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin emango dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Bestalde, eta ahalik eta gutun gehien sartzeko, 200 hitzetara errenditu beharko dira testuak.

KARKARAK bere egiten du esku-titzak laburtzeko eskubidea.

## Ikastolako jaialdia, primerakoa

Joan zen igandean, ekainak 13, urtero bezala, aukera izan genuen Orioko Herri Ikastolak antolatzen duen jaialdia ikusteko.

Urtero pentsatzen dugu urte horretakoa baino politagoa nekez egin dezaketela, baina, urtez urte, beti lortzen dute gu harritzea antolatzen dutenarekin. Horixe izan zen igandeko jaialdiarekin ere gertatu zena.

Ikustekoa da gaiarekin nola lotzen duten ikuskizun bakoitza! Imajinazio eta

makina *burukantsazio* ekarriko dizkie, bai, tamaina horretako ikuskizuna diseinatzeak eta antolatzeak... eta, zer esanik ez, horrekin guztiarekin lotuta dagoen musika ondo josteak. Denak balio zuen, musika klasikotik hasi eta gaur egungo rock zaratatsura arte; baina horiek guztiak nola zeuden uzartuta... horixe zen magikoa! Bazirudien joko bakoitzari uzartuta-kon musika, bere garaian asmatu zutenean, atzoko ikuskizunerako neurritara sortutakoa izan zela.

Orokorrean, ikuskizun zoragarria izan zen, benetan! Handik eta hemendik umeak eta umeak egindako lanaz gozatzen... eta irakasleak zorrotz begira.

Zorionak Orioko Ikastolako ehunka ume horiei eta beren atzean aitzakiarik gabe zintzo lanean ari diren irakasle horiei guztiak, horien lanik gabe ezinezkoa izango bailitzake urtero gozatzen dugun ikuskizuna.

Zorionak bere militantziagatik eta lan onagatik. Urte askotarako, Orioko Herri Ikastola! ■ **Guraso talde bat.**

## Bizikletak bidegorritik

Azkenaldian, nahikoa larrituta ibiltzen naiz espaloietan. Bidegorritik ez eta asko eta asko bizikletarekin ibiltzen baita oinezkoen bidean. Ez poliki, gainera. Eta ez pentsa haurrak bakarrik direnik!

Azken aste honetan ere izan dut susto galanta, Eusko Gudariko estankotik ateratzen ari nintzela, ia eraman ninduen txirringulari batek aurretik eta. Kolpe ederren bat hartzeko ere!

Kale batzuetan badago guztientzako lekua, baina beste askotan ez. Errespetatu egin behar dira espaloiak eta bidegorriak

jartzeko eskatu. Egunen batean handia pasako zaigu bestela eta. ■ **Bito.**

## Urtebete da Patxi Uranga kartzelan sartu zutela

Denbora azkar doa barroteen alde honetan. Patxiri, seguruena, nekezago pasako zitzaizkion azken urte honetako egunak.

Ekainaren 23an bete zen urtebete Patxi Uranga eta Olatz Lasagabaster atxilotu zituela Polizia Nazionalak Usurbilen, ETA-k kideak izatea leporatuta.

Zaila da gauza hauetaz idaztea inoren minak eta berritu gabe; baina iruditu zaigu, urtemuga honetan, zor geniola Patxiri urte osoan berarekin askotan gogoratu garrela esatea.

Besarkada handi bana bidali nahi diegu KARKARA egiten dugunok. ■ **KARKARA aldizkari-ko lagunak.**

## Txosna ordubetez itxita grebagatik

Ekainaren 29rako, San Pedro egunerako, deitutako greba deialdia dela eta, gaia sakon aztertu ondoren, honako hau erabaki dugu Orioko Txosna Batzordekoek:

Grebaren arrazoiekin bat egiten dugu, baina, festa eguna izanik, Orion aparteko testuinguru batean gaudela uste dugu. Horregatik, egun horretako ekintzeekin jarraitzea erabaki dugu eta txosna ireki egingo dugu. Hala ere, 20:00-20:30a aldera ordubeteko itxialdia egingo dugu txosnan, greba egingo duten langileei gure elkartasuna adierazteko. ■ **Orioko Txosna Batzordea.**

## Ondarroa 12 milia KARKARAN

Lehenik eta behin, nire burua aurkeztu behar nuke, atzetik datorren idatzia uler dezazuen: Leo Belaustegi naiz, Ondarroa 12 milia proiektuaren bultzatzaileetako bat.

Nire eskuetara heldu da zuen KARKARA aldizkaria, 281.ena, eta oso ona dela irudi-



## Ez entzun, ez ikusi

Eusko Gudari kaletik Pilotari kalera iristeko bi aldeetako sarreak penagarri daude eta ez dugu ulertzen utzikeria hori. Araudiak badira, motoak espaloietan aparkatzeko, eta bertan arautzen dira hainbat kontu: zenbateko zabalera izan behar duen espaloiak, oinezkoen pasabideen aurrean debekatuta dagoela aparkatzea, motoak ez direla inoiz paretaren kontra aparkatu behar baizik eta bide ondoan, espaloien ertze-tik 50 cm-ra...

Orioko Udalak ez dauka inolako araudirik eta inguru horretan motoak nahi bezala aparka ditzaten uzten du, batere kontuan izan gabe auzoko bizilagunak garrela gero kaltetuak: espalo horiek beti zikinak daude, koipeztuta, garbitzaileek ezin dituztelako behar bezala garbitu, beti motoekin okupatuta daudelako.

Kale horretan, nahiz txikia izan, herritar asko bizi da eta negozio koxkor batzuk ere badaude; horrek zer pentsa eman beharko lioke Udaleko norbaiti. Bertako bizilagunok ez dugu eskatzen preferentziatzeko traturik, baizik eta beste gainontzeko herritarrek jasotzen dutena. ■ **Farfara bizilagunen elkarte.**

tu zait. Hala ere, Ondarroa 12 milia buruz idazten duzun artikuluekin eta bertan azaltzen diren Orioko kofradiako idazkari Leandro Azkueren deklarazio batzuekin ez nago batere ados; edo hobeto esanda, hor esaten direnak ez direla egia esango nuke. Leandro Azkuek esaten du prentsa ohar baten bidez jakin zutela ekimenaren berri... eta berekin ez genuela kontatu... Ez da egia. Ondarroan maiatzaren 22an egin genuen aurkezpena, eta bi hilabete lehenago, martxoan, txostena bidali genion berri eta Baxurako Federazioari, esanaz zertan ari ginen eta zein zen gure helburua; txosten hura zirriborroa zela ere aipatu genion.

Hurrengo egunean Leandoren erantzuna honakoa izan zen: *errealitatetik kanpo zaudete.*

Apirilean Mutrikun hitzaldi batzuk egin ziren arrantzari buruz, eta han egon ginen Leandro eta biok. Aipatu nion ez nagoela ados bere erantzunarekin eta gai honi buruzko bilera egin beharra zegoela kofradia guztiak. Oraindik zain gaude.

Orain KARKARAKO albistean irakurri dudan erantzunarekin, ez dakit nora iritsi nahi duen. Berarekin egon ondoren, esan dit ez duela argitaratutako testua irakurri, baina berak nik irakurritakoak ez dituela esan.

Gai garrantzitsu eta handia da, eta kontua argitu nahi nuke. Denbora faltagatik, ordea, ezin dut oraingoan azalpen gehiagorik eman eta iraileko KARKARAN argituko ditut. ■ **Leo Belaustegi.** Ondarroa 12 milia adierazpeneko partaide bat.

**BACHEN LOREAK**  
**OREKA ENERGETIKOA**

- tratamendu naturalak -
- oreka energetikoa -
- bachen loreak -
- makrobiotika -

*Irkus Fernandez Huegun*

Tel: 655 726 291

Ormaiztegui 10, 48940 Leizor (Bizkaia)

egin zure publizitatea gurean

aldizkarian

943

83 15 27

**Joseba Ostolaza**  
**TAXIA**

24 ORDUKO ZERBITZUA

Tf: 646 510 288

Baxoalde, 9  
ORIO

**Maidor Arrillaga Sarasola** - 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa

Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODLOGIA ZENTROA

# Doako internet zerbitzua herrian

Wifi bitartez, kablerik gabe, alegia, internetera konektatzeko aukera izango dugu oriotarrok uztailetik aurrera. Izan ere, teknologia berriak erabiltzeko zerbitzua jarriko baitu martxan Udalak

Edozein herritar edo bisitarik erabiltzeko, doako internet zerbitzua jarriko du Udalak herriko hainbat toki publikotan. Kultura, turismo eta enpresa garapenarentzat mesedegarri izango delakoan, oinarritzko eta mugatutako zerbitzua eskaini nahi du, era horretara, egungo telekomunikazio operadoreekin lehian sartu gabe.

Uztailean jarriko da martxan zerbitzu berria udaletxearen, Kosta tailerraren, kiroldegian, turismo bulegoaren inguruetan eta hondartzan. Aurretik egindako instalazioak aprobetxatu dituzte sarbideak jartzeko. Erabiltzaileen erantzunaren arabera erabakiko du Udalak gero wifi-gune gehiago jarri behar diren ala ez.

## Erabiltzaileak

Wifi zerbitzua erabili nahi duenak aipatutako bost eremu horietako batera hurbildu beharko du ordenagailu eramangarria edota wifidun telefono mugikorra hartuta. Gehienez ere, antenatik 300 bat metrora egon beharko du, wifi seinalea hartzeko.

Proiektua egin duen Wifinova enpresak sarean dabilzanen joan-etorria egoki kudeatu eta erabiltzaileak legezatzeko sistema berezi bat jarri du martxan: norberak eraman duen euskarria piztutzearekin bat detektatuko du doako wifi zerbitzua -ez badu automatikoki aurkitu, eskuz aukeratu beharko da-. *Orioko Udala* da wifi-gune guztien izena eta, behin hori aukeratu, konexioa berehala egingo da.

Hala ere, internet erabili ahal izateko, programa nabigatzailea -Firefox, Internet Explorer, Safari...- ireki beharko du erabiltzaileak. Wifi zerbitzuaren atariko leihoa agertuko da segituan eta bete beharreko bi datu eskatuko ditu: erabiltzaile izen bat eta posta elektronikoa helbide bat. Hutsuneak bete eta adostu ondoren, nabigatzeko baimena emango du sistemak.

## Mugak

Segurtasun kontuak direla medio, zenbait ataritarako sarrera debekatua izango du doako zerbitzu honen erabiltzaileak: sexu edukikoak, esaterako, ezin izango dira kontsultatu. Deskargak ere ezin izango dira kontrolik gabe egin. E-mule, Ares edo Utorrent bezalako musika eraisteko programak erabiltzea debekatuta egongo da, hortaz.

Bestalde, aurreko paragrafoan esandako muga horiek gabe nabigatu nahi dutenentzat badago beste aukera bat, ordainpekoa;



Kultur etxeko guneaz gain, beste bost lekutan izango da doako wifia aurrerantzean. KARKARA

hori erabiltzen dutenek 128 kb eta MB 1 arteko konexioa izango dute. 3,95 euro ordaindu beharko da 2 egunetan erabiltzeagatik; 7,95 euro astebetegatik; 14,95 euro 15 egunengatik; 19,95 euro 30 egunengatik; eta 12,95 euro hilean zerbitzua urtebetez erabili nahi bada.

## Datu teknikoak

Kablerik gabeko 2.4 GHz-ko wifi estaldura emango du sarbideko puntu bakoitzak. Erabiltzaileek 256 kb-etara mugatutako banda zabaleko lotura izango dute, hortaz, eskura.

Kablerik gabeko telekomunikazio azpiegitura berriasortzeko, WIFI eta preWI-

MAX teknologia erabili dira. Erabilera arrunteko frekuentzia bidez lizentziatutako ISM banden bidez egiten dute lan eta espektro radioelektrikoko arau guztiak betetzen dituzte. PoE (Power over Ethernet) bidez elikatuko dira wifiguneak.

## Pilotua

Euskal Herriko arrantza udalen sarearen -Udalarrantzen- batzar batetik atera zen iazko martxoa-apirila aldera, euskal kostan internet zerbitzua herritarren eskura doan jartzeko burutazioa. Orio eta Mundaika izan ziren lehen esperientzia gisa proiektu pilotoa martxan jartzeko aukeratuak bi herriak. Wifia nola eta non jarri aztertze proiektuak egiteari ekin zion berehala Udalarrentzek, eta gastuak bere gain hartu zituen.

Jon Redondo alkatearen hitzetan, *Herri askoren artean landutako proiektuak egiteak dakarren onuraz gain, arrantza herrietan berrikuntzak bultzatu beharrean gaude eta horregatik eman zaio baietza lanketa honi*. Herritarren gustukoa izango dela ziur dago gainera.

Proiektua eskuan, instalazioak ezartzeko lanekin hasi ziren. 163.00 euroko kostua izango du Oriokoak eta horietatik 120.000 euro Eusko Jaurlaritzak jarriko ditu.



Espainiako Gobernuak ezarritako kuota bete egin dute gure arrantzaleek. KARKARA

# Antxoaren kostera bukatuta, hegaluze bila hasiko dira arrantzaleak

Kontserbagileak izaten dira arrantzaleei antxoa gehien erosten dietenak; baina, kanpoko arrainarekin biltegiak beteta, harrapatutakoaren %20 bakarrik erosi diete aurten lantegiak

Ekainaren erdian bukatu zen antxoaren kostera eta arraina ondo harrapatu dute gure baporeek. Ez dira hain onak izan, ordea, irabaziak, arrantzaleek espero baino merkeago saldu baitute arraina lonjan: 2,5 eurotan kiloa, batez beste.

## Ona, baina merke

Kantaurian antxoa harrapatzeko debekua altxatu eta gero, lonjan arrain preziatuaren zain egongo zirela pentsatu zuten arrantzaleek. Baina ez da horrela izan.

Kontserbagileak izaten dira antxoa gehien erosten dutenak, baina sareetan harrapatutakoaren %20 besterik ez dute erosi aurten: antza denez, kostera hasterako, kanpoko antxoaz beteta zeudelako lantegiak. *Bost urtez bertako antxoarik gabe egonda, atzerrian merkatu berriak aurkitu dituzte, baina aurten bestelakoa izatea espero genuen. Kontserbagile txikiak bakarrik izan dira guri erosi digutenak*, azaldu digu Leandro Azkue kofradiako idazkariak. *Hasieran, 6 eurotan saldu genuen ki-*

*loa, berehala hasi zen behera egiten eta, azken astean, 1,5 euro baino merkeago saldu behar izan dugu.*

## Kontrol zorrotza

5.400.000 kilo zen Espainiako Gobernuak ezarritako kuota eta ekaineko aurreneko astean bete zuten. Muga hori lehenago ez gainditzeko, kontrol zorrotza eraman dute arrantzaleek berek, kanpaina ahal bezain beste luzatuz. Kuota bete eta bi egunetara heldu zen gehiago ez arrantzatzeko Gobernuaren agindua, baina ordurako arrantzaleek utzia zuten kostera.

## Atunarekin beharko

Antxoaren kanpaina bukatuta, hegaluzea harrapatzea irtengo dira laster Orioko arrantzaleak eta prestatzen ari dira egunotan. *Iaz, antxoarik ez zegoenez, lehenago joan ginen hegaluze bila, baina aurten sanpedroen ondoren hasiko garela uste dut*, esan digu Azkuek. Atunaren harrapaketa urria arte iraungo du.

## LABUR

### Udalbiltza

**Babes taldea sortu da Orion**  
Udalbiltzaren aurkako epaiketa uztailean hastekoa denez, *Bai Udalbiltzari* Babes Taldea sortu da Orion, beste herri askotan bezala. Talde horrek, ekainaren 19rako, larunbatarekin, *Bai Udalbiltza*, *Bai Euskal Herriari* lelopean elkarretartzea egin zuen, Orioko udaletxearen aurrean.

### Antzerkia

**Inaxito interneten ikusgai**  
*Galtzagorrieto, Inaxito!* antzezlanaren sketxak sarean ikusgai jarri ditu [www.youtube.com/user/trikuharritaldea](http://www.youtube.com/user/trikuharritaldea) atarian Ibai Esoainek, Xabier Sukiak eta Gorka Tolosak osatutako Trikuharri taldeak. Apirilaren 10ean Zarauzko Lizardi antzokian eskainitako emanaldia grabatu ondoren, antzezlanaren DVDa prestatzen ari dira taldekideak eta udazkenerako kalean izatea espero da. Paper gaineko ipuina ere argitaratuko dute.

### Lehiaketa

**Orio Loretan**  
Landare eta lorez ongien apaindutako balkoiak sarituko ditu Orioko Udalak, Orio Loretan lehiaketa martxan jarrita. Aurten, gainera, ez da lehiaketan parte hartzeko izena eman beharrik izango, herriko balkoi guztiak hartuko baitituzte kontuan. Kalez kale ibiliko dira epaimahakideak uztailearen 1ean, saria nork merezi duen erabakitzeko.

### Sanpedroak

**Herri afaria astelehenean**  
San Pedro festetarako doako herri afaria antolatu du Orioko Txosna Batzordeak, Udalaren laguntzarekin. Mahaiak, aulkiak eta haragia erretzeko parrillak jarriko dituzte antolatzaileek eta janaria, berriz, norberak eraman beharko du. Edaria, txosnan eskatzeko dei egin du txosna batzordeak, ekintzarekin etekinen bat ateratzeko.

### Uda

**Txu-txu tren eta stock azoka**  
Orioko Merkataritza batzordeak antolatuta, ekainaren 30ean hasiko da atzera eta aurrera hondartza eta herria lotuko dituen txu-txu tren. 0,50 euro balioko du joan-etorriak eta Turismo bulegoan, udal kanpinen eta hainbat establezimenduan erosiko dira txartelak. Bestalde, stock azoka ere berriz egingo dute aurten. Abuztuaren azken asteburuan izango da, ikastola aurreko plazan.

# Soineko eder berria jantziko du KARKARAK hemendik aurrera



21. urtebetetzean, itxura berri du. KARKARA

Danel Agirre Lertxundik egin du diseinu eta molde berria KARKARarentzat. *Berrian* egiten du lan, egunkariaren gehigarrien maketak egiten, ama oriotarra duen gazte zarauztarrak

Sei urteren ondoren, agur esan dio KARKARAK jantzi zaharrari eta Danel Agirrekegin dako soineko berriarekin atera da kalera. Ez da gure aldizkariak hori egiten duen lehen aldia, 21 urtetan 5 azal izan baititu.

### Aldaketa nagusiak

Hasieratik bukaerara, goitik behera aldatu dugu aldizkariaren egitura eta begiratu hutsarekin antzematen da.

Azala dinamikoa da. Segun eta zer nabarmendu nahi den, era bateko edo beste kolore eta forma hartuko du; batzuetan, argazkiak azal osoa ere beteko du.

Gutunen, berrien eta elkarrizketen atalak hiru zutabetan antolatatu ditugu. Horrela, zutabeak zabalagoak dira eta testu gehiago sartzen da.

Iritzien sailean argazkiak kendu ditugu, garrantzi handiago emateko testuari egileari baino. Hala ere, orain arte bezala, iritziak izen-abizenez sinatuta joango dira. Horrez gain, beste atal bat ere gehitu diegu

iritziari: Gaia emanda. Atalaren izenak dioten moduan, KARKARAK izango du gaia proposatzeko ardura. Bi herritar aukeratuko ditugu, gai jakin baten inguruan iritzi emateko eta, kontrasteko bi ikuspegi ematen saiatuko gara: bata boga egiten badu, beste iritzi zia egitea egokitu zaito.

Erreportajea lau orrialdekoa izatera pasa da. Lehenengo bietan gaiaren inguruko edo pertsonaiaren argazkia eta titular handi bat erakutsiko da eta, azkenekoetan, mamia joango da.

Zerbitzuen atalari ere txikitu ederra eman diogu, beharrezko informazioa ahalik eta errazten aurkitzeko.

### Nortasunari tinko

Aldizkari batek ere aldatu behar du, baina Aiako eta Orioko aldizkariak ez dio horregatik betiko izaerari muzin egin eta irakurtzeko erraza izaten, argazki handiak jartzeko, herritarren ahotsa jasotzen eta euskaraz txikitu idazten jarraituko du.

## LABUR

### Zaharren Babes Lekuak Valentziara

Urtero bezala, astebeteko bidaiak antolatatu du Zaharren Babes Lekuak datorren iraileko Valentzia eta inguruak bisitatzen izango dira aurten, hilaren 20tik 27ra. Oraindik goiz samar da eta ekainaren bukaera aldera emango dituzte bidaiaren zehaztasun gehiago. Txartelak, berriz, abuztuaren 11n banatuko dituzte, 16:00etatik 18:00etara, Babes Lekuak bertan.

### Politika

#### Patxi Uranga itxialdian

Madrilgo Valdemoroko kartzelan dauden Asier Kintana Zorroza eta Iker Araguas Josue euskal preso politikoekin batera ekainaren 15ean hasitako gose greba utzi egin du Patxi Uranga oriotarrak, oso ahul sentitzen zelako. Itxialdian da orain Patxi, beste biek grebarekin jarraitzen duten bitartean. Ziegetan bakarrik egoteko eskubidea onartzea -beste euskal preso politiko batekin egoteko ez bada, behintzat- eta Valdemoroko kartzelako euskal preso politikoak berehala berriz elkartzeko dira hiruen eskaerak.

### Ingurumena

#### Errausketarik Ez! eguna

Konpostaren eta atez ateko gaikako zabor bilketaren nondik norakoak biltzen zuten ekainaren 6ko *Errausketarik Ez!* egunak herritar asko elkartu zuten Herriko Plazan. Orioko Errausketaren Aurkako Taldeko kideek, Herriko natur taldekoek eta Usurbilgo lagunek antolatu zuten aldarrikapen egun hori eta balorazio positiboa egin zuten: *Edukiontzietan baztertua uzten den produktu zikina garbi eta aprobetxagarri gisa ikustea lortu dugula uste dugu, eta, orokorrean, kontentua gaudela jendearen erantzunarekin.*



5. edukiontzien erabilera ezagutzeko egindako ikastaroetako bat, Orion. KARKARA

# Hondakin organikoa biltzeko ontzi marroiak jarri dira Orion eta Aian

Bildutako hondakinak Azpeitiko Lapatz zabortegiko konpostagailu industrialera eramango dira, bertan kalitatezko konposta egiteko. Konposta hori Udal Elkarte 5 herrietako lorategietan erabiliko da

Etxean sortzen diren hondakinen %43 bio-hondakinak (organikoak) dira. Datu hori ezagututa eta gaur egun hondakinen kudeaketaren inguruan dagoen eztabaida kontuan hartuta, organikoa ere gaika biltzen hasi da Urola Kostako Udal Elkarte, bere eremuko bost udalerrietan -Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia-. Horretarako, ekainaren 11tik, edukiontzi marroi berriak -bosgarrena- jarri dira kaleetan.

Bildutako hondakinak Azpeitiko Lapatz zabortegiko konpostagailu industrialera eramango dira, han bertan kalitatezko konposta egiteko. Konposta hori, Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten bost herrietako lorategietan erabiliko da gero.

### Aian 2 eta Orion 4

Aian 2 edukiontzi jarri dira: Aterpen, Lar-dizabal eskolako aparkalekuan, lurperatua, eta Andatzako San Pedro auzoan, etxe berrietan. Orion, berriz, lau jarri dira: Anibarko Portuan; Arrantzale kalean, ikastola parean; Estropalari kalean eta Iturbide kalean, Danbolin musika eskolaren ondoan.

### Zer bota daiteke eta zere ez?

Kozinatuta edo gordinik, landare jatorriko hondakinak doaz ontzi marroiari -fruta, barazki, lekale, pasta eta arroz hondakinak; fruta-hezurak; baita lore eta landare hondakinak, alpistea, baratze hondakinak, belarra eta kimatze hondakinak ere

eta animalia jatorriko hondakinak -hargi, arrautza, arrain eta marisko hondakinak; horien oskol eta azalak; haragi eta arrain hezurak; gazta eta haren azala...-. Beste hondakin batzuk ere bota daitezke, organikoak direlako. Hala nola, kafe hondarrak eta iragazkiak; infusio hondarra eta poltsatxoak; ogi, galleta eta opil hondaki-

### Etxeko errautsak, lurra, pardelak, komuneko papera, konpresak eta tanpoiak ez dira ontzi marroiari bota behar, ez baitira birziklatzen

nak; arrautza oskolak eta fruitu lehorren azalak; kortxo naturaleko tapoiak, txotxak... Sukaldeko papera, paperezko ezpain-zapiak, madalenen paperak, paperezko mukizapiak eta kartoizko arrautza-ontziak ere bota daitezke, baina zikinak baldin badaude bakarrik; bestela, paparen edukiontzi urdinerara bota behar dira.

Ez dira, inolaz ere, edukiontzi marroiari bota behar etxeko errautsak, lurra, pardelak, komuneko papera, konpresak eta tanpoiak. Horiek betiko zabor edukiontzian bota behar dira, ez baitira birziklagarriak.

### Giltza beharrezkoa da

Hondakin organikoa edukiontzi marroiari botatzeko, beharrezkoa da ontzia irekitzen duen giltza izatea. Edukiontzien funtzionamendua ezagutzeko, ordu erdiko ikastaro laburrak egin ziren Orioko eta Aiako kultur etxeetan, ekainaren 10etik 12ra. Edukiontzia zabaltzeko giltza jasotzeaz gain, etxean bio-hondakinak uzteko ontzi berezia, urte osorako 180 poltsa biodegradagarri -bi eguneko bat- eta informazio-txartela jaso zuten ikastaroa egin zutenek. Orion 458 lagunek egin zuten ikastaroa eta Aian, berriz, 103k.

Edukiontzia ireki ondoren, hondakinen poltsa bota eta berriz ere tapa itxi arte ezin da giltzarik atera; horrela, edukiontzia irekita ez gelditzea kontrolatzen da, ikastaroa egin ez duen inork ez erabiltzeko.

Giltzarik ez dutenek 943 89 08 08 telefonora deituta, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara, lor dezakete argibide gehiago.

**agirresarobe ARKITEKTURA**  
OBRA ETA PROIEKTUAK

ESTABILITZA ETA LOCALEN ERREPORMA PROIEKTUAK  
FATURAKA ETA ZERBITZUEN GADIDIRITZE PROIEKTUAK, IDEOAGAILUAK  
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMESAK, BREVIAK, ERREPORMAGUNTZA

OBRA BERRIKEN PROIEKTUAK, HIRIKITZA, LURREN KIDEAKETA

BORJA KIBRESANDEL LOPEZ, ARKITEKTUA  
MURICE O. S. KIBRESAN, ZARAUZTE

HUB: 943 731 722

**ACTIVA** **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abelantzi, 6 - Tel./fax: 943 85 12 49  
20809-ORIO

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremontak

fer.uranga@euskalnet.net  
telefon: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ez  
telef: 943 83 08 12

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 43 00 77  
sagasti@leioak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orto (Gipuzkoa)



Lehia estua izan zuten iaz emakumezkoek azken metroetan. KARKARA

## 2. Triatloi Herrikoaia jokatu da sanpedroetan

Igerian, bizikletan eta korrika aritu beharko dute ekainaren 27an, Orioko Herri Ikastolak antolatutako proba herrikoaia egin nahi duten gazte, gaztetxo eta helduek. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da

Iazko lehen edizioko arrakastaren ondoren, 2. Triatloi Herrikoaia antolatu du Orioko Herri Ikastolak sanpedroetarako. Ekainaren 27an, igandearekin, izango da kirol proba aurten eta 3 kategoria hartuko ditu: gaztetxoak -1997an, 1998an edo 1999an jaiotakoak- 17:00etan hasiko dira; gazteak -1994an, 1995ean edo 1996an jaiotakoak- 17:30ean; eta helduak -1993. urte edo lehenagokoak- 18:00etan. Errioan egin beharko dute igeri aurrena eta, bizikletan eta korrika arituko dira gero herrian barrena.

### Ibilbideak

Gaztetxoaren kasuan, 100 metro egin beharko dituzte igerian. Bizikleta hartuko dute gero eta, errioren ondotik joan, autopistako zubiaren azpitik pasa eta Arrantzale kaletik itzuliko dira ikastolara -2 km guztira-, han bizikleta utzi eta korrika abiatzeko. Erribera kaletik, Kosta tailerreraino joan beharko dute eta handik abiapuntura itzuliko dira, proba bukatzeko.

Zertxobait luzeagoa izango da gazteek egin beharreko ibilbidea: 200 metro egin-

go dituzte igerian. Bizikletan, berriz, 3 kilometro: ikastola paretik atera, hondartzara joan eta buelta. Kilometro bat egin beharko dute korrika ondoren: erri ondotik atera, Mendibeltz zelaiaren albotik Arrantzale kalera sartu eta helmugara.

300 metro egin beharko dituzte igerian helduek, 6 kilometro bizikletarekin (gaztetxoaren ibilbide bera baina bi aldiz) eta 1.800 metro korrika: errioko aldetik joanda, autopistako zubiaren azpitik Hondartzale kalera pasa eta handik ikastolara.

### Parte hartze handia

Herritar gutxi egiten du triatloia gurean, baina proba honek hasieratik erakarri duen jendetza ikusita, indarra hartuz doala dirudi. 100 inguru lagun animatu ziren iaz eta 150 parte hartzaile aurreikusituzte aurtengorako, 200 kirolari arte onartuko badituzte ere. Arrakastaren formulaz galdetuta, Imanol Zabaletak esan digu edonork egiteko modukoa dela eta, hain zabaldua ez dagoen arren, kirol proba herrikoaia dela triatloia.

## LABUR

### Arrauna

#### 2009ko harrobi onena

2009ko San Miguel Ligako Harrobi onenaren saria jaso zuen ekainaren 11n Orioko Arraun Elkarteak. Trainerua osatzen duten 14 arraunlarietatik 13 bertakoak, harrobikoak, jarri zituen Aizperro entrenatzaileak iazko denboraldian -bertako 14 arraunlarirekin ere aritu zen bi estropadetan- eta aintzatzotzat hartu dute jaialdiko antolatzaileek hori.

### De Anta, primeran

Arraun egokituko Espainiako txapelketa jokatu du uztailearen 9tik 11ra Orioko Arraun Elkartearen aritzen den Edorta de Antak. Maiatza bukaeran hirugarren egin zuen lekunberritarrak Munduko Kopan. Espainiako txapelketa irabaziz gero, mundialerako txartela lortuko du.

### Emakumezkoak ere lehian

Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Liga hasia du nesken Orioko ontziak: Deban jokatuko lehen estropada hilaren 19an. 13 minutu, 7 segundo eta 61 ehunen behar izan zituzten 2 luzeak egiteko eta 5. izan ziren, txapela jantzi zuen Getaria-Tolosarengandik 17 segundora. Uztailearen 18an jokatu dute Orion estropada.

# “Uztailaren 23an festa giroa ekarriko digu txirrindularitzak herrira”

## Joxe Mari Gonzalez de Txabarri

Aiako Txirrindulari Lasterketaren antolatzailea

Urte askotako hutsunearen ondoren -1985ean izan zen aurrenekoa eta azkena- Aiako txirrindulari lasterketa itzuliko da aurten gurera. Jubenil kategoriako neska-mutuez beteko da herria uztailearen 23an eta 10:00ak aldera hasiko da plazan

### LORE BERSALUZE

Joxe Mari G. de Txabarrik hartu du Aiako txirrindulari lasterketa antolatzeko ardurua eta inguruak txirrindulariez beteko dituen probari azken ukituak ematen dabil. **35 urte eta gero txirrindulari proba bat Aiara ekartzeak badu meritua.**

Lasterketa antolatzearen ideia beti ibili izan dut buruan bueltaka. Baina behar izaten da baten bat ideia hori bultzatuko duena eta... horixe falta nuen. Zarauzko txirrindulari taldearekin harremanetan jarri nintzen aurrekontuen eta bestelako zehaztapenen berri izateko. Beren babesna nuela-eta, aurrera egitea erabaki nuen.



Joxe Mari Gonzalez de Txabarri eta Pello Arruti, hurrenez hurren. KARKARA

## “Orduko saria jasotzeko nago oraindik”

### Pello Arruti

Txirrindulari ohia

Aiako Txirrindulari lasterketaren lehen edizio hartan bigarren izan zen Aiak eman duen txirrindularirik onenatarikoa: Pello Arruti. Oraingoan, aldiz, bide bazterretik begira gozatuko du lasterketa.

### Nola gogoratzen duzu lasterketa hura?

Ibilbidea ezberdina zen: Azkuetik aterata, Altzuzelaira buelta egin behar izan genuen orduan, Aian bukatzeko. Eerlojuaren kontrako saioa egin genuen, arratsaldez: Sarobetik Aiara. Herriko festak ziren.

Anaia etortzen zait gogora: hura ez zen bizikletarekin ibiltzen eta lasterketa egitea atera zen, jendea falta zela eta, berea ez zen txirrindulariarekin. Gizarajoa!

Bestalde, orduko saria jasotzeko nago oraindik, kar, kar.

**Txirrindulari asko al zineten irteeran?** Mordoska bat. Kostakoak batera ibiltzen

Amateurrentzako proba antolatzeko esan zidaten haiek aurrena, Aiako bideak egoki-egokiak direla haietzako, baina diru asko behar zen horretarako eta, hasteko, jubenilak hartuko genituela erantzun nien; ondo baldin badoa, ikusiko dugula.

### Zergatik jo duzu txirrindularitzara?

Alde batetik, Aian dema eta herri kirolak bakarrik egiten ditugula entzuten da sarri. Bestalde, Euskal Herriko Itzulia hemendik pasa izanak oihartzuna izan du. Bi baldintza horiek hartuta, tira egin nion hariari. Oriotarrak elkarrearen anparoen egingo dugu lasterketa, haiek federatuta baitaude eta gu ez. Gainerako organigrama -50 inguru boluntario lortu, osasun zerbitzuekin eta Ertzantzarekin eguna eta baldintzak adostu...-gure esku dago.

### Azaldu guzu nolako den ibilbidea.

Gozategi plazatik aterako dira txirrindulariak. Zarautz aldera jaitziko dira eta *Zakilaren Buelta*ri jarraituz, Getariatik, Zumaiatik, Oikiatik eta Ibañerrietatik barrena ibiliko dira, berriz kostaraino etorri aurretik. Zudugarako Gaintetik Aia-Orioko geltokira arte joango dira eta Andatza bailaratik igoko dira Aiara. Zudugarairaino berriz jaitzi eta aurreko buelta bera berriz egin beharko dute. Aldapaz ondo hornitutako 80 inguru kilometro egingo dituzte guztira. Sasoiko behar lukete txirrindulariek uztailean eta ez lukete lasterketa bukatzeko zailtasunik izan behar.

### Lana adina ordain emango ote dizu?

Lana handia bada. Babesleak aurkitu behar dira hasteko, xoxik gabe ez dago ezer antolaterik eta. Bestalde, zirkulazio kontuak tarteko, egun berean lasterketa bakarra egin daiteke probintzia guztian eta zein izango den erabakitzeak ere lana du. Hala ere, gustuko tokian aldaparik ez, eta ordaina izango dut, jakina.

gingen Zarauzko taldean, federatutako bakarra zelako.

### Asko aldatu dira kontuak ordutik hona.

Dudarik gabe. Herrian egiten genituen guk lasterketak, errepidera atera gabe. Kilometro gutxi saioak izaten ziren eta esan beharrik ez dago, bizikletak ere alde ederrekoak direla oraingoak. Zahar askoak ziren gureak! Joxe Mari bazuen bizikleta eta berari edo aitari kenduta ibiltzen nintzen ni, 14 urte ingururekin. Zarautzen egiten nuen lan eta handik etxerako bidea pedalei emanez egiten nuen; eguneroko entrenamendua izaten zen hura.

## Hondakinak gaika biltzeko garbigunea ireki dute Ubegunen

Astelehenetik larunbatera zabalduko ditu ateak eta Urola Kostako herritarrek, merkatariek eta eraikuntzako gremio txikiek erabili ahal izango dute eskualdeko hirugarren garbigune hau



Egurra, koltxoak, arropa, pilak, olio zaharra, etxetresnak... jasoko dira garbigunean. KARKARA

Ubegun industrialdean dagoen Aia-Orioko garbigune berria ekainaren leian ireki bazen ere, hilaren 4an egin zuten agintariek inaugurazio ofiziala. Bertan izan ziren, besteak beste, Aiako alkate Igor Iturain, Oriokoa Jon Redondo, Foru Aldundiako Garapen Iraunkorreko foru diputatu Karlos Ormazabal, Urola Kostako Udal Elkarte lehendakari Libe Amilibia, Orioko Udaleko Turismo eta Ingurumen batzordeburu Leire Zinkunegi eta Orioko Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzordeburu Jesus Rodriguez.

Gaika bil daitezkeen hondakinak eraman nahi dituenarentzat irekita izango da, hortaz, hemendik aurrera, astelehenetik larunbatera. 08:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era, astetartean; eta 10:00etatik 12:30era, larunbatetan.

### Hondakinak oinez edo ibilgailuarekin eraman daitezke, edukiontzien alboraino joan baitaiteke garraiobidez

#### Instalazioak

2.300 metro koadro ditu Aiari eta Oriori dagokion garbiguneak eta Urola Kostako hirugarrena da -2001ean ireki zen Zarauzkoa eta 2005ean Zumaiakoa-. Aiako Udalak jarri du lurra, Oriokoak aparejadorea, Foru Aldundiak 412.000 euroko inbertsioa eta Urola Kostako Udal Elkartearen kontura izan dira instalazioa eta zerbitzua.

Hondakinak oinez edo ibilgailuarekin eraman daitezke, edukiontzien alboraino joan baitaiteke garraiobidez.

#### Edukiontzia

Kalean ditugun edukiontzia dituzte alde batetik. Modu horretara, beira, ontzi arinak,



Igor Iturain alkateak agurra dantzatu zuen garbigunearen inaugurazio egunean. KARKARA

erabilitako arropa eta pilak jasoko dira bertan. Telebista, irrati aparailuak eta ordenagailuak bezalako etxeko tresna elektriko txikiak, automobiletako olio zaharra, etxeko hondakin arriskutsuak -fluoreszenteak, aerosolak, disolbatzaileak, tonerrak...- eta olio begetalak biltzeko egokitutako eremua ere badu.

Bestalde, hondakinak jasotzeko 30 metro kuboko 10 edukiontzi hartzen ditu eta horietatik 6 jarrita daude, dagoeneko. Egurra, obra hondakinak, poda edo inausketa hondakinak, kartoia, etxekotresna elektriko handiak eta garbigailuak, hozkailuak... bezalako zenbait hondakin geldo -lurra, koltxoak, kristal zapala...- bereiztuko dira horrela.

#### Erabiltzaileak

Aiako, Orioko, Getariako, Zarauzko eta Zumaiako herritarrek, merkatariek eta eraikuntzako gremio txikiek erabili ahal izango dute Ubegungo garbigunea, beti ere zenbait muga dituztela: alde batetik, bai-

mendutako gehieneko masa 3.500 kilogramo baino txikiagoa duten kamioiek bakarrik utzi dezakete karga; bestalde, asteko 750 kilogramoko eta 2 metro kuboko bolumena bota dezake, gehienez ere, erabiltzaile bakoitzak.

Hasiera batean, herritarrek bazuten garbigunean utzitako hondakinak hartu eta berrerabiltzeko aukera, baina arazo teknikoak medio -neurrik eta mugarik gabe hasi zen jendea hondakinak hartu eta hartu-, 2009ko ekainaz geroztik, debekatu dago. Hala ere, Urola Kostako Udal Elkarte iturrien arabera, garbiguneak arautzen dituen legedia aldatzeko dago eta aipatu berri dugun baldintza ere aztertze-ko asmoa dute.

#### Birziklatzea

Hondakinak garbigunean utzi ondoren, beren bidea jarraituko dute hauek. Saillatu egingo dituzte aurrea eta hondakin motaren arabera, berrerabiltzeko, birziklatzeko edo baimendutako zabortegira eramateko prestatuko.

#### Birziklatze datuak

Karlos Ormazabalek emandako datuen arabera, zaborraren %40 birziklatzen dugu gaur egun Gipuzkoan -Europar Batasuneko batez bestekoa %27 da eta Espainiakoa, aldiz, %14-. Gipuzkoarrok birziklatzearekin oso konprometituta gaudela ere esan zuen Garapen Iraunkorreko foru diputatuak inaugurazio egunean eta, hori horrela izanda, 2016. urterako zaborraren %57 birziklatzea lortu nahi dutela gehitu zuen.

### INFORMAZIOA

#### Akatsak eskuorrian

Urola Kostako Udal Elkarteak 281. Karkararen batera banatutako eskuorriak akats pare bat ditu: alde batetik, abuztuan garbigunea itxita izango dela jartzen du eta ez da horrela; goizez irekiko ditu ateak: 08:30etik 13:30era. Bestalde, Zumaiako garbigunearen azpian dagoen kokalekuko planoa da Aia-Oriokoari dagokiona eta, alderantziz, Zumaiakoa da Aia-Orio azpikoa.

## LABUR

### Ibilaldia

#### Arantzazura

Urtero bezala, Arantzazura ibilaldia antolatuta du Olarteta mendizale taldeak. Uztailaren 10ean izango da aurten eta goizeko 05:00etan aterako dira herriko plazatik. Uztailaren 8a baino lehen eman beharko dute izena interesatuek, Iturriozena kafetegian -943 83 4272- edo Zarauzko Dana-Merken -943 83 37 53.

### Festak

#### Egitarauan publizitatea

Herriko festaren egitaraua osatzeko bidean, publizitate moduluak jartzera animatu nahi ditu Aiako festa batzordeak herriko taberna, denda, lantegi edo beste edozein jarduerara. 60 euro balioko du modulu bakoitzak eta ekaina bukatu aurretik utzi beharko da logotipoa udal-txean.

### Erromeria

#### Bukatu da aurtengo denboraldia

Imuntzo eta Beloki trikitilariekin esan zion agur Aristerrazuko Erromeria Elkarteak aurtengo erromerien denboraldia, ekainaren 20an. 18:30ean hasi eta gaueko 21:30ak arte aritu ziren trikitilari beteranoak panderoa eta eskusoinua astintzen, Aristerrazun. Datorren urriaren erdi aldera hasiko dira berriz dantzarako gogoia duten gazte eta helduei Aristerrazuko deia egiten. Ordura arte opor txikiak hartu beharko dituzte erromeria zaleek.

### Kirola

#### Zarautz-Aia krosa

14 arrirak eta 10 oriotarrek hartu zuten parte ekainaren 13an jokatu zen Zarautz-Aia krosean. Hodei Alkorta izan zen lasterketako 10,315 kilometroak egiten aurrea, 46 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Ez zuen batere lasterketa txarra egin 116 korrikalarien artean 16. bukatu baitzuen. Helmugaratzen aurreneko oriotarra, berriz, Xanti Zabaleta izan zen, ordubete eta 8 segundoko denborarekin. Emakumeei dagokienez, bi oriotarrek bukatu zuten proba; aiarririk ez zen izan. Sonia Alonso 92. a izan zen ordubete eta 8 segundoko denborarekin. Itxaso Gonzalezek, ostera, ordubete eta 2 minutu behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Garaileak, Asier Cuevasek, 38 minutu eta 25 segundo behar izan zituen; nesketan lehenak, berriz, Rosi Talaverak, 49 minutu eta 3 segundo.

tel/fax: 943 89 00 69  
 Ibilbidea 4 - 21101 ZARAUZKO  
  
 URBIDE  
 TURGINTZA, BEROGINTZA  
 GASA, BAINU, ERAKUSKETA  
 Herriko enpresa, 1984

ZAPATA KONPONKETAK  
 Lanegutietan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00  
 Laruneguetan: 09:00 - 13:00  
 Herriko enpresa, 1984

Sukalde eta bainuen erreformak  
  
 XANTI MUJIKA  
 Igeltseritza  
 699 46 76 21  
 943 13 10 37

» UDAKO AGENDA



# Udako ikastaroak

Udako oporretan aspertzeko astirik ez dute izango herriko umeek. Udalak antolatuta, kirola egiteko, ingelesa ikasteko edota udaleku irekietan jostatzeko aukera izango dute aurretik izena eman duten haur guztiek, ekainean eta uztailean. 4 urtetik gorakoak arituko dira igeriketa, patinajea, tenisa edota hipika egiten; 12-16 urte bitartekoentzat izango dira ingelesko eskolak; eta 3 eta 11 urte bitartekoentzat udaleku irekiak.

### Jaiak

- Ekainaren 25ean eta 26an, San Joan jaiak, Iturriotzen.
- Ekainaren 28an, 29an, 30ean, uztailaren 2an, 3an eta 4an, San Pedro festak, Andatza auzoan.
- Ekainaren 28an, 29an, uztailaren 3an eta 4an, San Pedro festak, Elkano auzoan.

- Uztailaren 23an, 24an, 25ean, 26an 30ean eta 31n, Santio festak, Santio Erreka auzoan.
- Abuztuaren 1ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 10ean eta 11n, San Donato eta San Lorentzo festak.

### Bisita gidatuak

- Uztaileko ostiraletan, larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan Agorregiko burdinola eta errota gidari batekin doan bisitatzeko egunak. 11:30ean, Pagoetako Parke Naturalean. Informazio gehiago: iturrran@gipuzkoa.net helbidean edo 943 83 53 89 telefonoan.
- Uztaileko astearte, asteazken eta ostegunetan, Iturrrango erletgia bisitatzeko egunak. Prezioa: 3 euro ikasleko. 10:00etatik 14:00etara Pagoeta Parke Naturaleko Iturrran Parketxean. Informazio gehiago: 943 83 53 89 eta iturrran@gipuzkoa.net.

### Zergak

- Ekainaren 30 arte, Ondasun Higiezinaren Zerga ordaintzeko epea.
- Abuztuaren 2tik irailaren 15era arte, Ura eta Zaborraren zergari dagokion 2010eko bigarren hiruhilabetekoaren zenbatekoa ordaintzeko epea.
- Irailaren 1etik azaroaren 10era, Jarduera Ekonomikoaren Zerga ordaintzeko epea.

### Igerilekua

- Irailaren 12a arte irekita. Prezioak: eguneko sarrera, 3,5 euro, 4 eta 15 urte bitarteko umeentzat; 4,5 euro, helduentzat. Egunerdikoa sarrera -18:00etatik aurrera-: 1,5 euro, umeentzat; 2,5 euro, helduentzat: Uda osoko bonoak: 15



# Iturrrango parkea

Uda garaian bestelako ordutegia izango da Iturrrango parkean ere: 08:00etatik 19:00etara irekiko ditu ateak lorategi botanikoak. Arreta zentroa ere goiz eta arratsaldean egongo da zabalik uztailean, abuztuan eta irailean: 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era asteartetik ostiralera; larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan, berriz, goizez bakarrik, 10:00etatik 14:00etara. Astelehenetan itxita egongo da.

euro, 8 eta 15 urte bitarteko herriko umeentzat; 25 euro, 4 eta 15 urte bitarteko kanpoko haurrentzat; 25 euro, herriko helduentzat; 50 euro, kanpoko helduentzat. 11:00etatik 20:00etara. Bertako tabernaren ordutegia: 11:00etatik itxi arte.

### Podologoa

- Uztailaren 10ean eta irailaren 11n. Txanda hartzeko udalletxera deitu behar da: 943131144.

### Silo-bolak

- Uztailaren 13an, abuztuaren 10ean eta irailaren 14an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 643 81 65 0; edo bertako Igorrekin hitz egin: 660 04 97 51.

### Udako ordutegiak

- Uztailean eta abuztuan, kultur etxearen ordutegia goizez bakarrik: 08:00etatik 14:00etara. Irailean, goiz eta arratsaldean.

### Irteera

- Uztailaren 31n, Frantziako Roquefort herriko Grand Jeu Walibihappy (Walibi) parkera eskurtsioa. Prezioa: 40 euro (parkerako sarrera eta autobusa), heldu eta haurrentzat. Irteera: 06:00etan, aparkalekuan. Izena ematea: Aiako igerilekuan, uztailaren 15a baino lehen. Informazio gehiago: www.walibi-aquitaine.fr atarian edota walibiaq@cda-parks.com helbide elektronikoan.

**Tx Txalupa**

Antilla hondartza  
657 83 88 50  
20810 Orrio  
www.txalupa.com

RIOTERAPIA - Centrals Arriozki eta Nalika Alarozki  
MTRONISTA - Gabriela Arriozki

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORRIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**RAMIRO** argazkiak

ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com

Orrioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
frontoi ondoan  
Ifnoa: 943 83 01 89

**Kainu Lanegintza**  
Manutritu Lanegintza

lortzen teknika paisajista lorategi eta terrazen diseinua eta mantenua, ureztatze-sistemak eta kimaketa espezializatua

647 02 84 85

**TAILER MEKANIKOIA MANTEROLA S/L**

TEORIKAK ELSILAK

Santiago auzoa - 18 postakurria  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: hnmantrola@euskalnet.net

20 810 ORRIO - GIPUZKOA

AENOR kalitate ziurtagiriduna



## Eguraldi onarekin batera, uda

**E**guraldi onarekin batera etorri zaigu jada uda ere. Bukatu ditugu batzuk eskolak, azterketak, erreperazioak, selektibitateak eta abar. Urteko denboraldi beroenaren txanda dator orain, udaberriaren ondoren, eguraldi onarengatik akaso, denok alaitzen gaituen urtaroa.

Batzuentzat oporrak hasiko dira, beste batzuentzat lan denboraldia –ez da txarra egungo egoera kontuan izanik– eta beste batzuk, aldiz, eskolako oporrak hartu eta lanean hasi beharko dugu, xoxa batzuk irabazte aldera; non gastatua izaten baita, eta esaerak dion bezala, *Quita y no pon, se acaba el montón*. Jakina baita udarekin batera inguruko eta ez hain inguruko herrietako festak etorriko zaizkigula: Pelayo, Pedro,

Joan, Fermin, Santiyo, Donato, Lorentzo, Miel... barkatuko didazue norbaitena ahaztu bazait. Horrenbeste dira izan ere, eta denak horren segidan eta guk, euskaldun jatorrak izaki, ezin utzi festarik egin gabe. Makina bat aldiz galdetu izan diot nire buruari eta jirakoei zergatik egoten diren festa guztiak udan pilatuta, betiko erantzuna jasotzeko: *Santuen egunak udan izaten dituk eta*. Eta ene baitan *zergatik jarri ote zituen, jarri zituenak, udan horrenbeste santuren egun? zergatik ez ote zituen udazken eta neguan banatuago jarri? elizak parterik ba ote zuen? ala, kar, kar, pertsona ura ehiztaria zen, eta festa eta afizioa nahastu nahi ez, eta horregatik jarri udan?* Jakin ezak. Baina, hausnarketa hauek hari luzea eta eztabaida ugari ekar lezakete, eta ez nuke luzatu nahi.

Eta egunen banaketarekin gutxi balitz, herriak ere ez dauzkagu horren era antolatuan banatuta. Hasieratik aukeraketa egitea tokatzen baitzaigu, san Pedrok behintzat hor goiko ateak irekitzeko; ez al digu oztoporik jarriko, ingurumari honetan behinik behin, bere omenez zintzo eta jator ospatzen ditugu eta. Aukeraketa horiek, gainera, oso eztabaidatuak izaten dira lagunen artean, batek hemengoak hobeak direla, besteak horkoan neska batzuk ezagutzen dituela, hurrengoak hangoan lehengusuak dituela eta joateko esan diola. Azkenean, behintzat, nola edo hala moldatzen gara, ahalik eta ondoen.

Gauzak horrela, denoi uda on bat pasatzea opa dizuet, baina noski, eta honekin ez nuke agintari arduratsu planta eman nahi, inorekin pasa gabe.



**Txokoak eta jendea**  
Bamako aldean dabil jo eta ke Aiamalibusa

Abdou Sidiberen anaiek (argazkian) Aiamalibusa kamioi batengatik trukatzeko asmoa bazuten ere, merkatuaren egoera ikusita, Niono autobus linea martxan jartzea erabaki zuten. Alustiza izatetik *Air Niono* izatera pasa da eta egunero Bamako eta Niono lotzen dituen 6 orduko bidaia egiten du, bete-bete eginda.



## SANPEDROETAN BETI TOREATZAILE

**1**966an egindako argazkia da goikoa, San Pedro festetan ateratakoa, ekainaren 28an edo 29an. Herriko Plazan egiten ziren orduan zezenketak, udaletxea ikus daiteke atzean, eta aurreko urtean erre bazen ere, ez zuten zezenarekin ibiltzeko lekua aldatu.

Zezenaren aurrean korrika doan mutiko gaztea Jesus Maria Ferrin da, zezenzale amorratua. Familiatik zetorkion, aitona ere banderilleroa omen zuen eta.

Zelatari asko eta kementsu gutxi ikusten da

argazkian, Ferrin ez beste guztiak hesiaren atzean baitaude, begira.

Zezenek Orion jendea erakartzen zutela ikusia da, iazko sanpedroetarako jarritako argazkian ere ikusle asko agertzen baita.

Orduko alkate Jesus Mari Aiestaran zen.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: JESUS ESNAL

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**azkue**  
Tf: 943 13 04 38

Allianz   
Marigré Zaldua  
aseguru agentia  
Itzi Ordo, 10 behe-ona  
telefonoa: 943 13 47 92  
fax: 943 13 57 52  
e-maila: zokua.deia@allianz.es

**WEB**  
DISEÑO  
PROGRAMAZIÓ  
JON CEREZO OTAÑO  
TEL: 691-31-22-40

egunero-egunero,  
zuekin...  
**www.karkara.com**  
Konektatuai!



DV ARGAZKIA

# IOSU ESNAOLA

“HARROBIAK  
ERANTZUN EGIN  
DU GEHIEN  
BEHAR ZENEAN”

Hamalaua bizkarrean, bat eta lau zenbakiak elkarren ondoan: bat, Txapeldun izan baita Reala; lau, erdiko atzelarietan gazteena laugarren aukera izan delako. Baina hamalaua **lehen mailara igo da**, hamarrarekin batera.

“Ni ere Anoetan nintzen Reala igo zenean” kontatuko dio Iosuk bere bilobari.

**TESTUA: JON AGIRRESAROBÉ**

Siestatik esnatu berritan lo aurpegia du. Eztarriak ere eskertuko luke ospakizunik gabeko astebate. Halere, gozamina da Iosuren hogeita hiru urteei hizketan uztea. Umiltasuna eta futbolaren handitasuna, ilusioa eta eguneroko lana, izerdi larria eta ospakizunak. Zorionak eman dizkiogu: saiatu arren ez gara batere originalak izan.

**Animo aldetik, nola heldu zenion denboraldiari laugarren erdiko atzelaria izango zinela jakinda?**

Hasiberriak ilusioa behar du, baina neurrikoa: partida bat jokatu, aukera ahalik eta ondoen aprobetxatzeko. Hortik aurrera zortea baldin badago, hobe. Lehen ere bizi nituen halako egoerak eta ikasi egiten da. Ehuneko ehun eta hogeita eman nahiak gauzak okerrago egitera zaramatza. Halere, bigarren talderako saltoa eman nuenean, gehiago estutu nuen nire burua.

Lasartek argi utzi zidan –nahiz eta hitzez esan ez– laugarrena nintzela. Denboraldiaurre txukuna egin nuen, baina beste jokalarien esperientzia tarte handia da. Garbi nuen zein zen nire egitekoa: ondora

begiratu eta ikasi. Zirrikituaren zain egon, baina taldea biziz eta lagunduz.

**Atzean ongi funtzionatu duzue aurtenean, aukera gutxi utzi dituzte Ansotegi, Gonzalez eta Labakak. Nola mantentzen da ilusioa, astero-astero?**

Mikel Labaka izan da hirugarren atzeko erdilaria eta denboraldi ona egin du: aulkian egon da eta hiru edo lau gol sartu ditu. Dani Estradarena ere esanguratsua da: postu berrira egokitu, lehen itzulian zoragarri errenditu, baina, lesiotik erreperatu ostein, ez du minutu bakarra ere jokatu, Carlos Martinezek primeran aprobetxatu duelako aukera. Alegia, ez zegoen erraza, lanak ongi egin arren.

Indar aldetik boladak izaten dira. Joka-



OSCAR DE MARCOS

tzeko aukera gutxi duzula jakinda ere animatuta bazaude, konfiantza hartzen duzu entrenamenduetan. Bi saio nahikoa dira, ordea, animoa galtzeko. Baina azkar konturatzen zara burua jaitzita ez dagoela ezer. Bestalde, aldagelan gauza horiek ikusi egiten dira eta taldekideak gainera etortzen zaizkizu. Ez da ohikoena, bakoitzak bereari begiratzen baitio talde gehienetan.

Guk igoera lortu nahi genuen. Juanma Lillo iazko entrenatzailearen esanak gogoan, ordezkoek egiten dute taldea.

**Halako batean Ansotegi minez eta Gonzalez bost txartel horirekin, Huescan izan zuen Esnaolak denboraldiko aukera. Noiz jakin zenuen?**

Labakak eta Rivasek esana zidaten behin baino gehiagotan, baina Lasartek larunbat eguerdian esan zidan, partida aurreko berriketaldian. Pentsa daiteke presioa kentzeko egin zuela. Iragarri izan balu, kazetariak gainera etorriko zitzaizkidan.

**Kazetariak. Partida aurretik, Lasartek Rivas atzeratu zezakeela aztertzen ari zire. Aste arraroa izan al zen?**

Prensa begiratu egiten dut, irakurri ez. Aurten ikasi dut kazetariaren egunerokoa eta imajinazioaren parte dela egun-kariko albistea eta egunero orriak bete behar dituztela. Zalantzan jartzen zaituztenean min ematen du; onez datozenean ere neurrian hartzen duzu.

**Nola gogoratzen dituzu partidu aurreko orduak?**

Lasarteren azalpenak entzun eta bazkal-tzera. Lo kuluxka gero. Aranburu kapitainarekin nengoen logelan. Baina, telefonoa itzaldutik behar: uste dut *Kirolez kirol* efektua izan zela, eguerdiko ordubiak eta erdietan hasi zen animo dantza. Telebista bidez jakin zuten lagunek neronek bi ordu lehenago jakin nuena. Bakoitza bere ohean etzanda egon ginen. Partidua irudikatua nuen. Aldageletan portatu ziren taldekideak, haiek animoak. Lasai nengoen. Berotzera aterata ginenean, ikusi nuen afizio guztia. Tartean gurasoak, lehengusua eta lagunak. Urteko irudia izan da.

**Hasi da partida. Labakak banakoa sartu eta Iosu baloiaren bila, gola ospatzen ari**



JABI ARANGUREN

“Ehuneko ehun eta hogeia eman nahiak gauzak okerrago egitera zaramatza. Halere, bigarren talderako saltoa eman nuenean, gehiago estutu nuen nire burua”

“Animatuta bazaude, konfiantza hartzen duzu entrenamenduetan. Bi saio nahikoa dira, ordea, animoa galtzeko. Baina azkar konturatzen zara burua jaitzita ez dagoela ezer. Bestalde, aldagelan gauza horiek ikusi egiten dira eta taldekideak gainera etortzen zaizkizu, laguntzera”

“Aranburu kapitainarekin nengoen logelan. Telefonoa itzaldutik behar: uste dut *Kirolez kirol* efektua izan zela, eguerdiko ordubiak eta erdietan hasi zen animo dantza. Telebista bidez jakin zuten lagunek neronek bi ordu lehenago jakin nuena”

“Huescan gola ez ospatu izanaren pena badut, hainbeste lagundu zidan Labakak sartu zuelako gehienbat. Gogoan dut, ordea, gurasoak eta lagunak zeuden txokora begiratu nuela.”

“Villarrealen aurka jokatzeko Anoetara zaleen artean iristea izugarria izan zen. Hiru puntuak lortuta lasaitu egin zen jendea”

“Urtebeterako berritu dut kontratua, baina utzita joango naiz. Realari eta nire buruari bigarren mailako jokalaria naizela erakutsi behar diot lehenbizi. Minutuak behar ditut.”

Mikroa hartuta ibili da Iosu ospakizunetan. Aldagela eta Aitor Zabaleta zena izan ditu gogoan.

**ziren taldekideei “goazen bigarrenaren bila” aginduz.**

Ondo hasi nintzen, aurrelari kankailua eta beteranoa da Moises eta nahiko ongi kokatu nintzen zelaian. Bigarren zatian Huesca ez zen gerturatu ere egin. Galtzen hasi arren partida gurea zela ikusten nuen, garbi. Agirretxe eta Prieto atera ziren zelaira. Gola sartu eta ez duzu pentsatzen debuteko partida denik ere. Hamar minutu ginituen bigarrena sartzeko.

Orain, ez ospatu izanaren pena badut, hainbeste lagundu zidan Labakak sartu baitzuen gainera. Gogoan dut, ordea, gurasoak eta lagunak zeuden txokora begiratu nuela. Pentsatzen hasita, emozioari iheska baloia hartu eta ihes egin nuen.

**Huescako partidaren ostean deskubritu zuten kazetariak Iosu Esnaola. Partida ostean aitarekin emandako besarkada aipatu zenuen elkarrizketetan.**

Aitaz gogoratu nintzen. Elkarrekin egindako kilometroak, entrenamendu txar bat egin osteko egoskorkeriak eta haserreak... etxekoekin ordaintzen duzu beti. Badirudi ez nintzela amaz gogoratu. Berak sufritzen du gehien, etxean gelditzen delako.

**Aldagela goraiatu zenuen igoerako ospakizunetan, suzirik hizketan utzi zizuten arte: zure postuan jokatzeko duten Ansotegi, Labaka eta Gonzalez, baita Mikel Aranburu kapitaina ere.**

Cadizen irabazi ostean Bataplan diskotekan pasa genuen goizaldea. Goizeko ordu txikietan sentikor jartzen gara denak, bi trago hartuta. Ikusi egin behar zenituen Nsue, Estrada eta Bueno aldagela zaintzeko esanez, izan duten giza-talderik onena dela Realekoa. Eskarmentudun etxeko jendea da klabea: Estrada, Prieto, Bergara eta aurrez aipatutakoak zer esanik ez. Izugarriak dira.

**Euskaraz aritzen zarete, bistakoa da. Zelaian Carlos Martinez, Viguera, Sergio eta Rivasek primeran ulertzen dituzte euskaraz emandako agindu laburrak. Euskaraz egiten dugu aldagelan eta zelaian. Diario Vascok gabonetan ireki zuten xanpaina. Maiatzean larritzen hasi ginen. Noiz ikusi zarete lehen mailan?**



JABI COLMENERO

Villarreali irabazi eta gero. Min ematen zizun astebete lehenago Betisen kontratua naltz galtzeak. Anoetan indartsu aritu gara, baina etxetik kanpo hiru hilabete egon gara partidarik irabazi gabe.

Anoetara zale artean iristea izugarria izan zen. Txispa bideratzeko behar zen momentu hura. Hiru puntuak lortuta lasaitu egin zen jendea eta ez da kasualitate Cadizen partida hain erraz bideratzea. Hiru puntu eta falta ziren hiru partidetakoa konfiantza eman zigun garaipenak. **Zelaian lasaia zarel diozu. Partidak palkotik ikuste ez da samurra izango. Azkazelak erakusteko esango banizu?**

Bai. Bat aipatzearen, Cadizekoa oso gogorra izan zen guretzat. *Fondo sur* delakoaren gainean jarri gintuzten. Mehatxuka etorri zen zaleren bat eta komunera ere eskolta eta guzti joan ginen. Behin partida amaitu, taldekideak igoera puntu bakarerra genuela ospatzen eta gu palko txiki hartan sartuta, segurtasunekoak baimena eman zain. Halako batean esan nion Markeli, *Goazen!* Aulki artetik jaitzi ginen. Taldea aldagelan zegoen, baina zaleak ohartu ziren zelaira gindoazela: txaloka hasi zen afizioa. Negar batean bildu ginen.

**Nola bizi izan zenuen Anoeta Maracana bihurtu zeneko.**

Aste gogorra izan zen. Igoera egintzat jotzen genuen, baina erantzun egin behar zen. Jendea sarrera eske, denek egon nahi zuten bertan. Ez zegoen beste konturik, nola ospatu: jai eta autobus deskapota-bleak. Baina aldagela zentralatuta zegoen.

Eguna bera izugarria. Autobusa pasa ezinik, zelaiko burrunbada... Garaiz jaitzi ginen epaileak amaiera adieraztean zelaira salto egiteko. Hortik aurrera astebete ospakizunetan, zer nahi duzu esatea...

**Hamabigarren jokalaria loratu duzue ospakizunetan... baina, jakinaren gainean gaude: ez gara munduko zale onak. Eta ez du balio errua atletismo pis-tei botatzeko...**

Futbola afizio zen garaian, harmailetan eserita, ni nintzen *Labaka zer egin didak!* purrustan hasten lehena. Berotasuna taimainan eta kritika belarri gainean izaten

## KOADRILA IHESBIDE, ONDOAN BETI

**P**ankarta erraldoi hori-horia urrutira ikusi zitekeen Celta-ren aurkako partidaren: *Aupa Iosu, you'll never walk alone*. Hamalau zorbakiak zelaitik ikusi zuen murla. Koadrilakoak ziren: hemezortzi-hogei lagun pankarta eskuan hartuta iritsi ziren Anoetara. Tartean Ainhoa Mateos, Real eta futbola utzi berri duen koadrilako laguna.

Ugaitz, Txoko eta Kaxa dira -Iosuren esanetan- hiru amorratuenak. Hamabostero Anoetan izaten dira. Real bisitari dela aprobetxatuta, bidaiaren bat ere egin dute.

Eguerdian jakin zuten Huescako hamaikakoan izango zela Iosu. Garaiz iritsi ziren, Iratik eta Barakako tabernari aiarrek-Aitorrek eta Gorkak-osatu zuten *never walk alone* espedizioa.

Iosuk berak kontatu digu autoa hartu, musika jarri eta kostaldeko errepidean kilometroak egitea dela futbola ahazteko ihesbidea. *Kalean edo tabernan goizeko entrenamenduz edo asteburuko partiduaz galdetza hasten zaizu jendea. Askok telefonoz ere deitzen didate zer moduz nagoen galdetzeko. Eskertzen da, benetan, baina zaila da deskonektatzea. Lokala, lagunartea da bigarren aukera: Nitaz arduratzen dira, behar den neurrian. Ugaitz, Txoko eta Kaxak naturaltasunez daramate kontua: azkenean, zer moduz lanean galdetza bezala da Iosurekin futbolaz hitz egitea.*

Erraz kontzentratzen omen da Iosu; lasai egoten dela dio berak. Hiru lagunek egin diegu galdera eta baietz adierazi digute buruarekin.

Ospakizunak eta estuasun momentuak nola bizi dituzten galdetuta bat datoz hiru lagunak: *Muturrean antzemango diozu entrenamendu txarra egin duela edo partida galdu dutela. Hori bai, ospatzen ere ez du parekorik. Sansetik igo zenean, afaltzera gonbidatu gintuen. Mahaiaren bueltan eman genuen igoera osteko asteazken iluntzea ere. Bigarren ospakizuna festetan egitekotan gelditu gara.*



RUBEN PLAZA

da Anoetan: partidaren zehar denak isilik eta behin amaituta pelikula komentatzen egoten gara. Hara zer den futbola, antzeko giroa sumatu nuen Camp Nou-en ere, munduko talde onenaren zelaian. Aldiz, Cadizen egon berri gara, mailaz jaitzi dira, baina pase txarra egin eta txalo zaparrada jasotzen du futbolariak. Pase txar hura iaz Anoetan eginez gero, baloiak hanka erreko dizu hurrengo jokaldian. Gainera, etxekoari ez zaio gehiago barkatzen.

**Zubietan hazitako hamazazpi jokalaria zaudete igoerako argazkian. Harro da Gipuzkoa Realaren harrobiaz.**

Neurri handi batean, estuasunak bultzatu du Administrazio Kontseilua harrobiaren aldeko apustua egitera. Halere, etxeko jokariok erantzun behar zuen eta behar bezala erantzun dio aurten. Halere, Realak beti mimatu ditu etxeko jokariak: taldeko arduradunek eta eskarmentudun jokariak zer esanik ez. Baita afizioak ere.

**Kontratu berritu duzu?**

Hala da. Urtebeterako, luzatzeko aukerarekin. Aurten ez dut aukerarik izan, ezin dut beste urtebete jokatu gabe pasa. Realari eta nire buruari bigarren mailako jokalaria naizela erakutsi behar diot lehenbizi. Horretarako minutuak behar ditut.

Utzita joango naiz Sarasola, Viguera eta besteren baten gisan. Real Union eta Eibar jaitzi egin dira. Gertuko aukera ez da txarrena izaten. Bigarren mailan talderen bat aurkitzea litzateke onena. Bigarren mailan ugari dira erdiko atzelari beteranoak, horien ondoan zaildu behar nuke.

Realean hasiko naiz entrenatzen, uztailaren hamazazpian. Orduan ez dut jakingo oraindik zein taldean arituko naizen. Denboraldia hastera doala tokatuko da maletak egitea.

**Zer eskatu behar diogu Realari datorren urtean?**

Euforiko gaude eta hori ez da txarra. Baina kontuz ibili datorren urtean! Ezin diogu gure buruari helburu handiegirik jarri: ezinezkorik ez dago, baina seguru aski hamaseigarren posturako borrokan ibiliko da Real. Helburu horrek ilusioa sortu behar du.

## Urak daramana, urak dakar

**E**arritan bezala, erriok bere lurrrak hartu zituen lehengo astean. Euriteak eta ur kargak uholdeak sortu zituen eta urak berea duen lurra hartu zuen; bereak diren erriberak. Egia izan zitekeen, baina ez zen gertatu. Ez zen gertatu marea behera ziholako asteazken gauean. Eskapada ederra! Garaje batzuk busti eta kitteda! Ez da pasa, baina pasako da. Urte batzuen kontua.

Ur ugari horiek izaten dute bere fruitua ere, eta aspaldiko partez ziza-horiak bil-tzen aritu nintzen auskalo nongo basoan. Eta ale batzuk bildu nituelarik orbel arteko distirak nire arreta bereganatu zuen. Eguzki printzen artean zilar kolorezko lauki metalikoa nabarmendu nuen. Segituan bi pauso eman eta haritz hostoak eskuz baztertu ondoren kate metaliko zabal aurkitu nuen. Katearen segidan borobila. Eta borobila katearekin... erlojua! Metalezko erlojua! Lurretik jaso, garbitu txotxak, buztina kendu eta berriz... sorpresa! Aurkitutako ordularian nireaz.

**Azken finean bizitzak horrelako ezustekoak ematen dizkigu. Denbora tarteko, gutxien espero zenuena izango duzu bidailagun eta etsai amorratuak algara kide bihurtzen dira**

Duela zortzi bat urte galdu nuen nire erloju zaharra! Bizitza ez al da magikoa? Buel-tan-bueltan galtzeak hainbeste min eman zidan bitxia berreskuratzeko aukera izatea ez al da zoragarria? Horrenbeste hosto eta lur gainean, hainbeste eurik bustia, auskalo zenbat jende pasaran azken urteotan eta nik aurkitu behar.

Azken finean bizitzak horrelako ezustekoak ematen dizkigu. Denbora tarteko, gutxien espero zenuena izango duzu bidailagun eta etsai amorratuak algara-kide bihurtzen dira. Eta harrokeriaz barkamena eskatu ez zenion herritarra topatzen duzu parean, laguntzen. Eta aukera hori aprobetxatu dezakezu *lehengokoa* barkatu esateko, nahiz eta dagoeneko bost urte pasa, baina... Oriokoon harrotasun puta hori! Hala ere, pausoa norberak eman beharra dauka, adiskidetzak tripa barrena lasaitzen baitu.

Ondo pasa sanpedroak eta badakizue zizak beti toki berean ateratzen direla... eta erlojuak ere bai!

## Zuentzat

**A**stearte goiza zen eta autoa hartze-  
ra nindoala, atentzioa eman zidan  
horman itsatsita zegoen kartelak.  
Norbait saiatua zegoen kartela  
kentzen, baina oraindik irakur zi-  
tekeen *Euskal Preso Politiko...* zioen zatitxo bat.  
Momentuan, aurrera jarraitu nuen eta autoan  
sartu nintzen.

Autoan nindoala, preso politiko hitza nuen  
buruan oraindik eta hitz horiek zein erraz ira-  
kurtzen ditugun konturatu nintzen. Errazegi.  
Gure euskal gizarte supermoderno eta hipe-  
rraurreratu honetan, XXI. mendean, demokra-  
zia gorenean gaudenean, ehunka eta ehunka gi-  
zon-emakume daude bi estatuetan sakabanatu-  
rik preso.

Bada denbora nire belarriak ohituak daudela  
hitz horietara, bizitza osoan esango nuke. Aito-  
nak milaka aldiz kontatzen zizkigun bere gerra-  
ko pasarteak. Bilboko Zinturoia, Santoñako

errendizioa, Kalamuako gatazka eta abar, baina  
bazuen istorio bat min handiagoarekin konta-  
tzen zuena. Bera preso izandako momentuak ja-  
sotzen zituen. Aitona gudaria baitzen, edo te-  
rrorista agian? (ez dut inolako dudarik).

Orain, 70 urte geroago, Euskal Herriak Espai-  
nia eta Frantziako kolonia izaten jarraitzen du  
eta 714 euskal preso politiko daude etxetik  
2.000, 1.000, 500, 780... kilometroa. Inork ez du  
ukatzen gure presoena gatazka politiko baten  
ondorio politikoa dela eta, beraz, zergatik uka-  
tzen zaie estatus politikoa?

Gaur egun, sekula baino larriagoa da kartzele-  
tan duten egoera. Inoiz baino kondena handia-  
goak -30urte- pairatzen ari dira, inoiz baino zi-  
gor handiagoak jasotzen ari dira, Patxi Uranga  
herritarra, adibidez, Valdemoroko laugarren  
moduluan bakartu dute eta gaur egun itxialdian  
dago bere egoera salatzeko -eutsi gogor, Patxi!-.  
Gregorio Eskudero, aldiz, 9 hilabete daramatza  
bisean bisik izan gabe, etxekoekin egon gabe. Sei  
presok, gaixotasun larriak eta sendaezinak di-  
tuztenak, kartzelan jarraitzen dute eta 170 pre-  
sok baldintzapeko askatasunean egon behar lu-  
kete. Hori gutxi balitz, zer esan senideez... Non  
dira, ba, giza eskubideak? Bisita batean istripua  
izan eta galdu ote dira?

Badira sei hilabete preso politikoen kolekti-  
boak mobilizazio ekintzei hasiera eman ziela,  
duten egoera salatzeko. Hasi eta berehala jaso  
zituzten lehenengo zigorrak, jada 74 preso dira  
Euskal Herriko urrundu dituztenak eta ia denak  
moduluetan bakartu dituzte. Bada presoren bat  
-Sergio Polo, esaterako- sekulako jipoiak jaso  
duena ere. Hala ere, txapeoekin, planteoekin...  
eta gose grebekin erantzuten ari dira. Badira bi  
hilabete Itxaso Legorburuk gose greba batean  
parte hartu zuela.

Baina zentsura sekula baino handiagoa den  
une honetan, gero eta oihartzun handiagoare-  
kin datoz gatazka politikoa konponbidean dago-  
enaren zurrumurru goxoak. Eta zurrumurruak  
gauzatu daitezten, ezin dugu ahaztu euskal preso  
politiko guztiak etxean behar ditugula, irekita  
dagoen prozesu demokratikoari bultzada emate-  
ko. Azken batean: amnistia!

## Ederra aldea

**I**kusi dugu zer egiten ari di-  
ren hemengo gobernuak  
zorioneko krisia dela eta:  
zergak ez ukitu eta funtziona-  
rioei soldata jaitsi, jubilatuei  
gutxiago ordaindu, zerbitzu  
sozialak murriztu, banketxeen  
zuloa guztion diruarekin ber-  
dindu... Alde ederra zegoen le-  
hen aberats eta besteen arte-  
an, eta are handiagoa egingo  
dute krisiaren aitzakiarekin.  
Ez omen dago beste biderik:  
berdin dio nor ari den gober-  
natzen, sozialista edo PPkoa,  
ez duela axola, esaten digute,  
ez omen dago alderik horre-  
tan. Ederki sartzen digute zi-  
ria, ederrak betiko kapitalistek  
esan eta guk irensten ditugun  
gezurak.

Badira, ordea, herritarrak  
eroso eta ondo zainduak senti-  
tzea lortu duten gobernuak,  
Suedia edo Norvegia edo Fin-  
landia... denok dakigu zein di-  
ren eta inbidia izugarria sor-  
tzen digute. Zergen bidez diru  
asko kentzen diete herritarrei;  
baina, horren truke zerbitzu  
sozial oso onak eta osoak es-  
kaintzen dizkiete. Alde ederra,  
badirudi haienean krisiak era-  
ginik ez duela. Lurren horie-  
tan Hego Euskal Herrian bai-  
no 1,5 gehiago kobratzen du  
ogasunak eta hemen halako 3  
bider funtzionario, zerbitzari  
publiko, dituzte: alde ederra.  
Inon baino alderik txikiagoa  
dago aberats eta pobreen arte-  
an, berdintasun handiena izate-  
a lortzen dute edozein dela  
herritarra... ederra aldea!

Kinkladenda - Une arropa  
**argine**  
www.lesonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89  
25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARJEN TXARTELAREKIN

edmitologia  
**ANTILLA**  
jaletooa  
Nirorart Kalea, 2 - Tel. 943 89 26 00

**Alustiza Autobusak**  
Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorru: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

**A&E**  
The Academy of English  
Justo Kalea 3, Zarautz | Iñaki Ondo pl. 8 Orin  
Tel. 943 00 42 44 / 943 83 51 91

**uranga**  
autozerbitzua  
**Aliprox**  
Euzko Gudari Kalea 14-15  
ORIO  
943 83 38 75

**AMILIBIA**  
ONTZIOLEK, S. L.  
Iñaki Oñativia proiektu  
eta instalazioak  
guztira eta kateak  
irratia-entzua  
Olasoaga, ga. auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**ITZAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agenta  
**ASEGURUAK**  
Abeslari, 4. 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**ARIDATZA** modas  
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**ARKAITZ**  
Taberna  
Pintxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarleko mundialak  
ABESLARI KALEA, 4  
Tel. 943 83 16 57

**ARISTERRAZU**  
jatetxea

Andatza auzoa - AIA  
Tel. 943 83 45 21

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Platerak  
**ELKAR**

platera eta papertze lanak  
zoru leunketa

Azenda Industrialen  
943 83 09 45 / 943 83 23 35  
ZARAUZ

**Automóviles**  
**ZARAUZ**

GRUPO ZERRITO OROZAL

ZARAUZ BARRIO  
943 83 09 45  
22 ETZ

ZARAUZ TEL. 943 13 11 50

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zuñegarai, Getariako txakolina  
Iñárrategi, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur, Señorio de Laungala  
Gallur eta Arandegi,  
Arabar Errioxako ardoak

Buño Buziri, 45 - ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserasti@okamnet.net

**Gabon**  
TABERNA

platerak, txakoladak, aperitxoak

Tfnos: 943 83 06 09

**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laboral, kontablea

**Eugenio Garmendia**

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 beheko - ORIO  
Autobus parada ondoan

**HAIZE BERRI**  
taberna-jatetxea-kafetegia

Plater kumbintuak,  
bokitak,  
kumburgesak,  
saxiak,  
egurrak...  
eta etxera eramateko zerbitzua!

3. eta kaleakoa, Ibañeta - 48101 (1421) - Astele asteak

**jatetxea**  
logelak

**gazteategi**

Elkano auzoa  
943 13 16 06

**Orioko**  
Herri  
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**islada**  
BESKOLA ZARAUZ

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Salsaren kalea, 2 beheko - Oriko 20810  
Tel: 943 133 856  
e-mail: isladaorrio@hotmail.com

**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**Zaragueta**  
Eskola Oriko

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@ezkuntza.net

**LUXARBE**  
igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra,  
denotank egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnos: 943 53 59 00

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 83 41 23 Fax: 943 83 54 88 itsasadarra@itsasadarra.com  
Iba: Oriko 4, beheko 30810 Oriko

ardoak, urdaikiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino**  
eramaten ditugu



943 83 09 84 alta lertxundi, 36  
ORIO

## Gaia emanda Zer egin gure hondakinekin?

Bi iritzi doaz gai beraren gainean: bati zia egiteko esan diogu, besteari boga eskatu. Hurrengorako iritziak zertaz eta nori eskatu bururatzen bazaizu, esaiguzu

### Hondakinen gestio tradizionala

**H**ondakinen gestioa eboluzionatzen joan da eta garaian garaiko teknologia aurreratuena erabili izan ditu. Ez da ahaztu behar gestio-motarik zaharrena gure baserrietakoa zela: konpostajea txerriek egiten zuten, asko birziklatzen zen eta sukalde ekonomikoan erretzen zen gainerakoa. Hondakinen lehenbiziko edukiontzia jarri zenetik gaur arte, birziklatzeko teknologia berriak garatu dira eta herrietan edukiontzia espezifikoa jarri.

Sistema tradizional horren bidez, herritarrei zerbitzu bat eman zaie, beren bizitza-kalitatea modu progresiboan hobetu duena: hondakinak edozein unetan utzi litezke edukiontzietan, ingurumena zaintzen da eta hondakinen gestioa jasangarriago da.

Azken aldirian hainbat herritan inposatu den sistema alternatiboak (inposatu diogu, ez direlako arauak, prozedurak, estatutuak eta erakundeak kontutan hartu) ez du bilatzen hondakinen azken kondarrak (birziklatu ezin direnak) gutxitzea. Sistema horren ezarpenak ez du zerikusirik ez ingurumenarekin eta ez hondakinen gestio jasangarriarekin.

**Hondakinak sortzea ebitatu ezin dugunez... erraustea oso egokia da**

Ez du ahalbidetzen hondakindegiak edo errauste-plantak kentzea eta herritarren bizitza-kalitatea gutxitzen du. Sistema tradizionalak bilketa selektiboa du oinarri eta, horretarako, herritarrek hezi behar dituzte birziklatzearen eta hondakinen sailkapenaren kulturaren. Konpromiso zibikoa eskatzen die herritarrei, hondakinak egoki banatzeko eta prozesuaren arduradun egiten dituzte, erakundeekin batera.

Herritarren konpromiso horri esker, hondakinen gestiorako sistema tradizionala jasangarriago da; herritarrek sentiberatzeko eta hezteko ikastaroak eta jarduerak prestatzen dituzte; aprobetxatzen ez diren hondakinen azken kondarrak ahalik eta gehien gutxitzen dituzte; eta bilketa selektiboko sistemak etengabe ebaluatzen dituzte. Ingurumena zaintzen da eta hondakinen gestioa jasangarriago da.

Gaur egungo errauste-planten emisioak ia ez dira ezer, berokuntza-galdarak emititzen dutenarekin alderatuta. Hondakinak sortzea ebitatu ezin dugunez, teknologia egoki eta jasangarrien bidez tratatu behar ditugu; eta erraustea oso egokia da. Horregatik aplikatzen da horrenbeste herri garatutan.

**Anjel del Hoyo**  
Hirigintzako zinegotzia

### Eta orain zer egin behar da?

**H**orixe izan da edukiontzia marroia ikusi orduko jende askok eta askok egin digun galdera. Alde batetik, jendartearen interesa piztea lortu dugun seinale; eta, bestetik, interes horri erantzuteko beharra sortzen digun galdera zuzena bezain zorrotza!

Ez gara gu izango hondakin organikoak ez bereizteko eskatuko dugunak; besteak beste, errausketaren aurkako mugimenduak lortu zuen organikoaren bereizteko sistema PI-GRUG-ean sartzea, hasieran ez baitzen hori ere aurreikusten. Gure azken helburua Gipuzkoa *Zero Zabor* lurraldea izatea da eta, horretarako, ezinbesteko baldintza da organikoaren bilketa efektiboa egitea. Nola esan, beraz, 5. edukiontzia ez erabiltzeko, organikoaren bereizteko aukera bakarra hori duenari? Dena den, orain dator galdera potoloa: 5. edukiontzian organikoaren bereizteko sistema efektiboa al da? Argi eta garbi: ez!

Ez, 5.000 biztanleko herri batean 4 edukiontzia marroi jartzen direlako, biztanleen %90 sistematik kanpo utziz.

**Guk dena birziklatzea nahi dugu... eta erakutsi dute atez atekoarekin bakarrik lortzen dela hori**

Ez, %90 horren organikoak edukiontzia orojalera doazela, 5. edukiontzia erabiltzaileen esfortzua baliogabetzuz! Azken finean, EZ, agintariek eskuak garbitu eta arazoak bere horretan jarrai dezan pentsatutako sistema bat delako!

5. edukiontzia buruz gauza asko esan daitezke; hain ontxi gutxi egonda ez du birziklatzea batere errazten, batzuk ia 300 metro dauzkate beren etxetik gertuen dagoen edukiontzira. Bertatik ateratzen den organikoaren kalitatea ere dudakoa da: kamioia 2-3 egunetan behin pasatzen bada, fermentatu egiten delako, eta ustelduta iritsiko delako Lapatzeko konpostaje plantara, plastikozko ontzi itxi horietan eta, askotan, eguzkitan dagoelako. Baina, ziurrenik, sistema horren gauzarik kuriosoena jendeak ematen dion erantzuna da. Gugana galdezka etorri diren guztiak atez atekoaren aldekoak dira, sistema erabiltzen dutenen gehiago oso zabala ere bai eta 5. edukiontzia sutsuen defenda-tzen duenetako inork ez du erabiltzen. Zerbait esan nahi du horrek, ezta?

Birziklatzea da gizarte osoak onartzen duen jarrera zibikoa. Guk dena birziklatzea nahi dugu, dena eta denok, inzibikoek zibikoon airea, lurra, ura eta osasuna izoratu ez ditza-tzen. Usurbilek, Hernanik eta Oiartzunek erakutsi dute hori atez atekoarekin bakarrik lortzen dela.

**Iztar Barrenektxea**  
Errausketaren Aurkako Taldea



Ekainaren 12an egin zuten Danbolin musika eskolakoek ikasturte amaierako agerraldia. KARKARA

# Etorkizuna dantzan, oraina begira

## Kritika Danbolinen dantza saioa

Iosu Lizarralde eta Mireia Atorrasagasti, 'Harribil' dantza taldeko kideak

**A**rratsaldeko 18:00ak. Kiroldegia gainezka. 4tik 13 urte bitarteko 185 dantzari eta musika eskolako musikariak azken hilabeteetako lana erakusteko prest. Urduritasuna nabari da, ez da erronka makala horrenbeste jenderen aurrean dantzatzea. Guk ere badakigu zer den hori.

Trikitixaren doinuaz bada-toz txikienak. Gurasoak ere ur-

duri, kamerak eskuetan ez dituzte galdu nahi beren txikien dantza munduko lehen pausoak. Erraz transmititzen dute beren alaitasuna; lotsa alde batera utzita gustura ari dira. Haiek dira etorkizuna.

18:45ak. Txikien ostean handien txanda. Agurraren ondoren, kriskitinez osaturiko koreografia original eta berritzaileak aho bete hortz utzi gaitu. Euskal dantzak erakutsi dizkigute jarraian, bikaintasunez eta gogoz dantzatuak orokorrean. Begibistakoa da atzetik entsegu ordu asko egin dituztela dantzak landu eta koordinatuz.

Amets bat kanta izan da arratsaldeko koreografiarik ikus-

garriena. Emanaldiko mementorik hunkigarriena, ordea, zaharrenek eman digute. Azken koreografiarekin oilo-ipurdi jarri digute; malkoak eta guzti isuri ditugu.

Amaierako txalo zaparrada; ikusleak asetu diren seinale. Guk ere txalotu nahi dugu egindako lana. Zorionak, beraz, dantzari guztiei egindako lanagatik, baita emanaldia aurrera ateratzeko ezinbesteko izan diren musikari eta irakasleei eta, nola ez, Anderri, egindako esfortzuak fruitua eman duelako. Zorionak!

Arratsaldeko 19:45ak. Kiroldegia hustu da eta urduritasunak amaitu. Hurrengo emaldiaren zain gaude, orain.

## Ikasleak idazle Ekain Lizarralde

### Lehen erabakia

**D**agoeneko DBHko 4. maila amaitzen ari gara, ez zaigu ezer falta. Lehen urruti ikusten genuen horretara iritsi gara, zorionez ala zoritxarrez. Aurten ikastolan hitz egin dugu horri buruz, baina orain serioago hasi gara, denbora gutxiago falta baita.

Duela pare bat hilabete Oteitza Lizeo Politeknikoko bi arduradun etorri zitzaizkigun hitzaldi bat ematea guri eta gurasoei. Bertan etorkizuneko hartu beharreko erabakiari buruz jardun ziren, hau da: lanean hasi edo ikasten jarraitu, eta hemen beste bi aukera, Lanbide Heziketa edo Batxilergoa.

Beraz, aurtengo ikasleak banandu egingo gara eta norberak komeni zaion bidea jarraitu beharko du, lagunek zer egiten duten begiratu gabe. Izan ere, asko baitago jokoan: etorkizuna.

**Aurtengo ikasleak banandu egingo gara eta norberak komeni zaion bidea jarraitu beharko du, lagunek zer egiten duten begiratu gabe**

## » HANDIK ETA HEMENDIK



“Etxea izateko nik nire amaren etxea ere badut; (...) tabernara joaten naizenean eta ardoa eskatzen dudanean ordaindu egiten dut, denek bezala.”

Unai Manterola, apaiza, Pergolan aldizkaria, 2010eko ekaina.

“Erraustegiaren kalteak jendartean argi ez badaude, zaila da atez atekoa saltzea. Horregatik jaia. Gai tristea da, baina irri batekin erantzun dugu”

Egoitz Eizagirre, Errausketaren Aurkako Taldeko kidea, Info 7 Irratian, 2010eko ekainean.

## » OSPAKIZUNA



## Ahizparekin jostatzen

Ekainaren 3an jaio zen Irati G. de Txabarri Urrutia. Egunak ziren ama Idoiaren sabeletik noiz aterako zain zituela etxeokak denak, baina, batez ere, Maren ahizpa. Hiru kilo pasatxoko neska ederra jaio denean, zaharrena handia sentitu da: muxu eta besarkada artean txikia itoko duela iruditzen zaie gurasoei. Hortxe dituzue biak argazkian, zein baino zein ederrago.

## » ZORIONAK!

### Orioko dantzari finei

**H**erriko hainbat dantzariarik Zugarramurdiko leizean egin zen *Sugarrenardin* ikuskizun garaikidean hartu zuten parte ekainaren 19an. Urteko egunik luzeenaren bezperatan, sorgin giroan, pertsonaia nagusi gisa aritu ziren, eta bertan ikusle izan zirenen ahotik jaso dugu izan zuten arrakastaren berri. Akelarrea eta euskal mitologia ezin hobeto irudikatu omen zizuten eta primerako saioa eskaini omen zuten.

Ez da zutabe honetatik Orioko dantzariak zoriontzen ditugun lehen aldia; izan ere, urtean zehar hainbat emanaldi jendetsu antolatzen dituzte, esaterako, Herribil eta pasa berri den San Joan berdeko Sorgin Gaua.

Zorionak eta segi horrela!

**iñaki argazkiak caperochipi**

ezkontzako asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**KOLON TXIKI**

Herriko Enparantza, 4 ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**LEIHOLAN**

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Taldea: Agote Industrialek, Agote, 5, 20740 Zestoa

Erakusketak: San Juanak, 1, 20800 Zarautz, 01010 Orio, Tel: 943 88 48 26

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROPINERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donazio eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiarako zerbitzua  
\* Belatorio galak  
\* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 38, Zarautz  
Tel: 943 88 48 26 / Fax: 943 88 48 43  
e-mail: harragip@tanatorio.net

**Lizaso dekorazioa**

Eusko Gudari, 48  
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 11

**LOBETXU JETETXEN**

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**IZARRA BIDEOA**

**ESKAINITZA MUNDIALAK**

PANASONIK 42" 530€-tik

SAMSUNG 32" 400€-tik

L.G. 19" 199€-tik

SAMSUNG 40" 600€-tik

**zatoz eta harritu zaitez!**

Aritzaga 15. Orio **TEN 21** 943 83 36 81

# Dema, arrauna, krosa, aizkora... kirola jaun eta jabe

## Duela 25 urte 1985eko ekaina

**H**erri kirolak puntaren puntan zebiltzan duela 25 urte gurean: demak, apustuak... edonon eta edonoiz ikus eta goza zitezkeen. Aian ere sarri izaten ziren: Alkorte baserriko Ramon Albenizek eta Errotazarreko Jose Albizuk, esaterako, 50.000 pezeta jarri zituzten jokoan ekainaren 15ean. Ramon Albeniz eta iloba zuen Luis Albenizen gidaritzapean aritutako behiak 41 plaza eta 3 metro egin zituen Aiako probalekuan, 22:00etan hasita. Albizuren idien txanda izan zen atzetik. 590 kiloko harriari tiraka, 35 plaza pasatxo egin zituen animaliak eta desafioa galdu egin zuen.

Aizkoran ere aritu ziren ga-

koako txapelketa irabazi ondoren, Euskadiko txapeldun izan ziren, olatu handi eta itsaso zakarrean jokaturako estropada irabazita. Zumaia izan zuten oriotarrek denboraldiko aurkaririk gogorrena, baina txapelketa honetatik kanpo geratu zen, irteerako balizara bere orduan agertu ez zelako.

Bestalde, kirol ontziak eros zitzen, arraun elkartari milioi bat pezetako diru laguntza ematea erabaki zen ekainaren 10ean udal-batzorde iraunkorrak egindako bileran.

### Nobelatik zinemara

Idazle Elkarteko lehendakari izateari utziko ziola adierazi zuen Anjel Lertxundik maiatzaren 31n elkartearen egoitzan egindako batzarrean. Joxe Mari Velez de Mendizabalen esku utzi zuen bi urtez berea izan zuen kargua eta batzordekide soil izatera pasa zen, Txillardegi, Jose Joakin Azurza, Krutwig, Juan San Martin, Bernardo Axtaga eta Jon Kortzaren

kolan: hilaren 10ean hasita, ikasketa bukaerako bidaia egin zuten alde batetik -Lloret de Maren izan ziren OHoko 8. mailakoak, eta Xoxoten erdi ziklokoak-, eta sanjuanak aitzakia hartuta, ikasturtea agurtzeko festa izan zuten, bestalde, ekainaren 23an: meza egin zuten 09:00etan, San Joan ermitan bertan; kirol eta kultur emanaldiekin segi zuten; eta

### Hamaseigarrenez aidanez bere nobelan oinarritutako filma zuzentzeari ekin zion Anjel Lertxundik uda garaian

### Ikasturtea bukatzeko bezperetan, jaialdiak eta eskurtsioak ziren nagusi Zaragueta Herri Eskolan

Arrasateko Auzolagun kooperatibak emandako bazkariarekin bukatu zuten eguna.

### Sanpedroak

Hiru eguneko festa egitaraua antolatu zuen Udalak Orioko sanpedroetarako. Erraldoien eta buruhandien kalejirarekin hasi ziren herriko festak ekainaren 28an. Danborrada, txistularien diana, artisau lanen erakusketa, pailazoak, hainbat kirol proba -kros herrikoia, futbito, estropada, sokamuturra, karate...- dantza saioa, jokoak, antzerkia, musika... izan ziren ekainaren 30ean, urtebetez jaiak agurtu aurretik.

### JAIOTAKOAK

- Lierni Aramendi Arzallus, Orion, ekainaren 17an.
- Irene Cuenca Elvira, Orion, ekainaren 6an.
- Iker Etxeberria Dominguez, Orion, ekainaren 13an.
- Luken San José Tamayo, Orion, ekainaren 5ean.
- Irati Gonzalez de Txabarri Urrutia, Orion, ekainaren 3an.
- Xabat Loidi Etxabe, Orion, ekainaren 2an.
- Daniel Alvarez Liron de Robles, Orion, maiatzaren 31n.
- Aisha Alvarez Liron de Robles, Orion, maiatzaren 31n.
- Lucia Alvarez Liron de Robles, Orion, maiatzaren 31n.

### EZKONDUTAKOAK

- Jon Larrañaga Azkue eta Idoia Lopez Perez, Orion, ekainaren 19an.
- Aloña Navas Aiestaran eta Ismael Manzanedo Ugarte, Orion, ekainaren 18an.

### HILDAKOAK

- Puri Zabalo Oiarzabal, 78 urte. Aian, ekainaren 9an.



KARKARA

## “Surflari amorratua naiz, baina Mediterraneoan ez dago olaturik”

### Alex Baylin

Itsasgizona

Alex beti kanpoan ibili den horietakoa da eta Oriora herriminak jotzen duenean bakarrik etortzen da. Bost urte daramatza Mallorcan bizitzen eta duen ogibideaz, semeaz, janariaz eta afizioez hitz egin digu.

### MIKEL ARANZABAL

#### Zenbat urte dira Oriotik joan zirela eta zergatik joan zinen?

Mallorcan bost urte daramatza, baina lehenago ere alde batetik bestera ibilia naiz. Udan irletara joaten nintzen hasiera bate-

an, yate kapitaina naizelako. Gero, Eivissan bi urte eman nituen eta, azkenik, nekalogunarekin Mallorcan finkatu nintzen. Kapitain lana utzi eta enpresa txiki bat sortu nuen sozio batekin. **Zertan egiten duzu, bada, orain lan?** Palmako herrixko batean, ontzitegi txiki

bat erosi genuen eta zerbitzu nautikoak eskaintzen ditugu. Ontzien mantentze-lanak eta konponketa-lanak egiten ditugu eta finka bat ere badugu, ontziek negua pasatzeko. Udan itsasoko sorospen eta erreskatatze lanetan ere aritzen gara eguneko 24 orduetan.

Krisiak eragiten digu, baina pixkanaka aurrera ateratzea lortzen ari gara.

#### Ume bat ere baduzu eta euskaraz egiten omen diozu, gainera.

Asier du izena eta bi urte eta erdi ditu. Bi hilabete zituela ezagutu zuen Orio eta ordutik ez dakit zenbat aldiz etorri ote den, hamar edo hamabi...

Nik, ahal dudan neurrian, euskaraz egiten diot; gure amak ere bai, bisitan etortzen den bakoitzean, Mallorcako euskal-etxean eskolak ematen dituzte... Baina zaila da euskaraz ondo ikastea, gaztelaniaz, katalanez eta alemanez ere hitz egiten du eta. Nire asmoa, gutxienez, euskal kultura eta euskara ezagun egitea da.

#### Orain beste titulu bat eskuratzeko itzuli zara.

Bai, itsasontzietako kapitain profesionala. Lehendik ere kapitain titulua badut, baina jende askok du titulua eta, azkenean, beste bat altuagoa sortu dute. Hemen edo han bi aste eman behar nituen, profesionalaren lana egin ahal izateko, eskolak hartzen eta, aukeran, nahiago dut hemen egon. Han, gainera, bi urtetarako zerrenda dago.

#### Urtean zenbat aldiz etortzen zara Oriora?

Traileko bigarren asteburuan ez dut inoiz hutsik egiten; Kontxako estropada sakratua da niretzat. Gero, oporrak izaten ditudanean; normalean, urria aldera. Kanpoan bizitzen ohitua nago, baina urteak aurrera joan ahala gero eta herrimin handiagoa sumatzen dut. Palma Euskal Herria baino merkeagoa da eta eguraldi hobea izaten da, baina janaria ezin da konparatu.

#### Amak ez al dizu janaririk eramaten?

Nola ez, bada. 400 litroko hozkailua dut eta ama etortzen den bakoitzean osorik betetzen du. Piper-beteak, haragia, babarrunak... baina izoztutako janaria ez da egin berria bezalako.

#### Janaria al da gehien faltan somatzen duzuna?

Janaria... egia esatea nahi? Olatuak. Zaharra naiz, baina surflari amorratua eta Mediterraneoan ez dago olaturik.

#### Kanpoan bizi zaretenentzat derrigorrezko galdera: asko aldatu al da Orio?

Bai, baina aldaketa orokorra da. Herri guztiak ari dira aldatzen; eta denak okerrera. Gaur egun Udalak diru-bilketa eta kudeaketa enpresak dira, berentzat garrantzitsuena gastatzea eta eraikitzea da eta helburu nagusia ahazten dute: herritarren ongizatea.

# (1985)

rai hartan: kanako bi enbor zeinek azkarrago moztu apustua egin zuten Usurbilgo Alkortak eta Aiako Leon Albeniz *Iruntxiberrik* ekainaren 16an. Aiarrak 3 minutuko alde bazuen ere, usurbildarra nagusitu zen lehian; minutu eta erdiko alde aterazion honek.

### Arrauna

Trainerilletan fin ibili ziren oriotarrak 1985. urtean. Gipuz-

rekin batera. *Hamaseigarrenean aidanez* nobela ardatz hartuta egitera zihozten filma zuzentzeari buru-belarri ekin behar zion udan. Orio, Arroa, Ibañerrieta eta abarretan ibili zen gidoiari jarraituz eszenak filmatzen.

### Eskolako kontuak

Ikasturtea bukatzeko bezperetan jaialdiak eta eskurtsioak ziren nagusi Zaragueta Herri Es-

**LURDES**  
KONKORDIA  
  
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille apaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
  
Eusko Gudari, 8 - Iajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

arraztegia  
**MIRANDA**  
Kortxeak  
Gela eta teilatuak...  
behar dituztenak  
agutu diekitugu  
Udazketa bidez: 1-660 42 32 70- SARATZE

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

## » AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

## » Salgai

■ 2 gela handiko eta 2 komunetako duplex berria (2003koa) salgai, herriaren erdialdean. Igogailua eta trasteroa ditu eta oso argitsua da. 279.000 euro. Tf: 652 73 78 64.  
 ■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.  
 ■ Etxea salgai Goikokalen, 150.000 eurotan. Tf: 657 70 19 11.  
 ■ Bigarren eskuko altzariak salgai, egoera onean. Tf: 610 81 80 79.  
 ■ Etxea salgai Eusko Gudarin. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

## » Alokatzeko

■ Pisua dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 loge-

la, 2 bainu gela, garajea... 629 680 410.

## » Galdutakoak

■ Hondartza inguruan haurren hartza itxurako panpin arrosa bat galdu da. Oso gustukoa du eta norbaitek aurkituz gero 650 45 08 69ra deitu deza la, mesedez.

## » Lan bila

■ Udan umeak zaintzeko neska gaztea eskaintzen da. Tf: 943 83 08 04.  
 ■ Orion bizi den emakume marokorak lana egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldian laguntzaile moduan. Garbiketaren lanetan eskar-

mentua badu.

Tf: 667 91 53 98.

■ Neska gazte eta arduratsua udan haurrak zaintzeko. Tf: 658 22 55 62.  
 ■ Edadetuak zainduko nituzke. Eskarmentua badut eta erreferentziak ere bai. Tf: 617 71 54 39.

## » Etxe bila

■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo, lan orduetan 943 83 15 18.

## » ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
25	04:20 eta 16:38	10:30 eta 22:50	
26	05:05 eta 17:19	11:14 eta 23:30	○
27	05:46 eta 17:57	11:54 eta	
28	06:24 eta 18:32	00:07 eta 12:31	
29	07:00 eta 19:05	00:43 eta 12:36	
30	07:34 eta 19:38	01:16 eta 13:09	
01	08:08 eta 20:10	01:49 eta 11:42	
02	08:42 eta 20:45	02:23 eta 14:17	
03	09:20 eta 21:26	03:00 eta 15:26	
04	10:04 eta 22:17	03:43 eta 16:15	●
05	10:58 eta 23:22	04:35 eta 17:11	
06	12:02 eta	05:40 eta 18:20	
07	00:37 eta 13:11	06:54 eta 19:30	
08	01:49 eta 14:15	08:03 eta 20:33	
09	02:52 eta 15:11	09:03 eta 21:27	

## » ZAINZAKO BOTIKAK

EKAINA / UZTAILA	Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
■ 25ean, Etxeberria.	943 13 31 83 Zarautz
■ 26an eta 27an, Larrañaga.	■ Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
■ 28an, G. Artiñano.	■ Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
■ 29an, Mutiozabal.	■ Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
■ 30ean, Larrañaga.	■ Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
■ 1ean, Etxeberria.	■ G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
■ 2an, G. Artiñano.	■ Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz
■ 3an eta 4an, Azaldegia.	■ Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
■ 5ean, Larrañaga.	
■ 6an, Mutiozabal.	
■ 7an, Etxeberria.	
■ 8an, G. Artiñano.	
■ 9an, Azaldegia.	
■ 10ean eta 11n, Etxeberria.	
■ 12an, Mutiozabal.	

## » AGENDA



## Loreak uda garaian

Ekaina bukatu arte izango da Mamen Mari artistaren erakusketa ikusgai Salatxo tabernan. Kolorez eta formez gainezka dauden loreen hainbat koadroekin osatu du bilduma donostiarrek.

Sanpedroen ondoren, berriz, Iñaki Edrosok jarriko du erakusketa. Umeen argazkiak hartuko ditu ardatz. Bere atzetik Urtzi Garmendia oriotarraren txanda izango da, abuztuaren.

## Orio

## » Musika

■ Ekainaren 25ean, Oh Happy Day! telebista saioan aritutako Orioko Salatxo eta Mallabiako Jasokunde eta Mendibil abesbatzen emanaldia. 20:00etan, Ikastolako areto berrian.

## » Busti zaituz eguna

■ Uztailearen 11n, ADEMGIE elkartearen inguruko informazioa banatzeko eta kamisetak saltzeko postua jarriko dute. 10:00etatik 14:30era, Herriko Plazan.

## » Irteera

■ Uztailearen 13tik 16ra, Murillo de Gallegora - Aragoiko Pirineoak - irteera, abentura kirolak egitera. Prezioa: 115 euro.

Baldintzak: DBHko ikasle izatea eta igeri egiten jakitea. Bileraren eguna: ekainaren 25ean, 18:00etan, Ametsa gaztelekuan. Izen ematea: Uztailearen 13an, 18:00etatik 20:00etara, Ametsan.  
 ■ Uztailearen 20an, Arcachon Aqualandera irteera. Prezioa: 20 euro. Baldintzak: DBH baino goragoko ikasle izatea eta igeri egiten jakitea. Bileraren eguna: ekainaren 25ean, 18:00etan, Ametsa gaztelekuan. Izen ematea: Uztailearen 13an, 18:00etatik 20:00etara, Ametsan.

## » Bisiguaren Festa

■ Uztailearen 15etik 18ra, Bisiguaren Festa. Otorduetako bat dastatzeko 943 830904 telefonoan egin behar dira erreserbak, 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte (larunbata eta igandea

barne). Epea: uztailearen 2a. Prezioa: 45 euroko.

## » Zinea kalean

Filme guztiak 22:30ean emango dira hondartzan. Eguraldi txarrekin, berriz, Karela kiroldegian.  
 ■ Uztailearen 10ean, *Winkyren zaldia*.  
 ■ Uztailearen 31n, *Transformers, la venganza de los caidos*.  
 ■ Abuztuaren 7an, *Igelak eta zapoak*.  
 ■ Abuztuaren 11n, *Cazadores de dragones*.

## » Bisita gidatuak

■ Kayakarekin ibaian: uztailearen 3an (18:00), 17an (18:00), 20an (11:00), 27an (16:00) eta 31n (17:00); eta abuztuaren 3an (10:00), 10ean (16:00), 14an (17:00), 17an (10:00), 24an (16:00), 28an (17:00) eta 31n

(18:00).

■ Orioko historia barkuan, kirol-portutik: uztailearen 4an (19:00), 11n (17:00), 26an (18:00); eta abuztuaren 9an (17:00), 16an (19:00), 23an (17:00), eta 30ean (18:00).

■ Orio-Donostia-Orio barkuan, kirol-portutik, 17:00etan: uztailearen 18an, 25ean; eta abuztuaren 8an, 15ean, 22an eta 29an.

## » Estropadak

■ Uztailearen 18an, nesken ligako eta KAE1 ligako estropadak, hondartzara parean.  
 ■ Abuztuaren 28an, TKE ligako traineru estropadak: Inmobiliaria Orio 19. ikurrina. 18:00etan, hondartzara parean.

## » Traste zaharrak

■ Uztailearen 14an eta 28an, abuztuaren 11n eta 25ean eta irailaren 15ean, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien ondoan.

## » Turismo bulegoa

■ Udan, egunero irekiko da Orioko turismo bulegoa. Astelehenerdik larunbatara, goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00); igandetan, goizez bakarrik.

## » TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ	
Donostia	5:47 6:17 6:47 7:17 7:47 8:17 8:47 9:47 10:47 11:47 12:17 12:47 13:17 13:47 14:17 14:47 15:17 15:47 16:17 16:47 17:17 17:47 18:17 18:47 19:17 19:47 20:47 21:47
Aia-Orio	6:11 6:41 7:11 7:41 8:11 8:41 9:11 10:11 11:11 12:11 12:41 13:11 13:41 14:11 14:41 15:11 15:41 16:11 16:41 17:11 17:41 18:11 18:41 19:11 19:41 20:11 21:11 22:11
Zarautz	6:19 6:50 7:20 7:50 8:20 8:50 9:20 10:20 11:20 12:20 12:50 13:20 13:50 14:20 14:50 15:20 15:50 16:20 16:50 17:20 17:50 18:20 18:50 19:20 19:50 20:20 21:20 22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA	
Zarautz	6:08 6:38 7:08 7:38 8:08 8:38 9:08 10:08 11:08 12:08 12:38 13:08 13:38 14:08 14:38 15:08 15:38 16:08 16:38 17:08 17:38 18:08 18:38 19:08 19:38 20:09 21:09 22:09 22:38
Aia-Orio	6:15 6:45 7:15 7:45 8:15 8:45 9:15 10:15 11:15 12:15 12:45 13:15 13:45 14:15 14:45 15:15 15:45 16:15 16:45 17:15 17:45 18:15 18:45 19:15 19:45 20:15 21:15 22:15 22:45
Donostia	6:39 6:50 7:20 7:50 8:20 8:50 9:20 10:20 11:20 12:20 12:50 13:20 13:50 14:20 14:50 15:20 15:50 16:20 16:50 17:20 17:50 18:20 18:50 19:20 19:50 20:20 21:20 22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

## » AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN	
DONOSTIA-ZARAUTZ	
Donostia	6:55 7:40 8:10 8:40 9:10 9:40 10:40 11:40 12:10 12:40 13:10 13:40 14:10 14:40 15:10 15:40 16:40 17:40 18:10 18:40 19:10 19:40 20:15 21:00 22:15
Orio	7:25 8:15 8:45 9:15 9:45 10:15 11:15 12:15 12:45 13:15 13:45 14:15 14:45 15:15 15:45 16:15 17:15 18:15 18:45 19:15 19:45 20:15 20:50 21:35 22:50
Zarautz	7:35 8:25 8:55 9:25 10:25 11:25 12:25 12:55 13:25 13:55 14:25 14:55 15:25 16:25 17:25 18:25 19:25 19:55 20:25 21:00 21:45 23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA	
Zarautz	6:45 7:15 7:45 8:15 8:45 9:20 9:45 10:45 11:45 12:45 13:20 13:45 14:20 14:45 15:20 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:15
Orio	6:55 7:25 7:55 8:25 8:55 9:30 9:55 10:30 10:55 11:55 12:55 13:30 13:55 14:30 14:55 15:30 15:55 16:30 16:55 17:55 18:55 19:30 19:55 20:55 21:25
Donostia	7:30 8:00 8:30 9:00 9:30 10:10 10:30 11:10 11:30 12:30 13:30 14:10 14:30 15:10 15:30 16:10 16:30 17:10 17:30 18:30 19:30 20:15 20:30 21:30 22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

## » ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ	
Donostia	8:00 9:00 10:00 11:00 12:00 13:00 14:00 15:00 16:00 17:00 18:00 19:00 20:00 21:00 22:00 23:00
Orio	8:35 9:35 10:35 11:35 12:35 13:35 14:35 15:35 16:35 17:35 18:35 19:35 20:35 21:35 22:35 23:05
Zarautz	8:45 8:45 9:45 10:45 12:45 13:45 14:45 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:45 22:45 23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA	
Zarautz	6:45 7:45 8:45 9:45 10:45 11:45 12:45 13:45 14:45 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:45
Orio	6:55 7:55 8:55 9:55 10:55 11:55 12:55 13:55 14:55 15:55 16:55 17:55 18:55 19:55 20:55 21:55
Donostia	7:30 8:40 9:40 10:40 11:40 12:40 13:40 14:40 15:40 16:40 17:40 18:40 19:40 20:40 21:40 22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira





Edificio Axiri, 16  
tel. 943 85 21 10  
**AZKOITIA**

Santiago auzoa, 12  
tel. 943 14 34 43  
**ZUMAIA**

Gesalaga kalea, 18  
tel. 943 14 82 41  
**ZESTOA**

Abendaño, 2  
tel. 943 13 50 16  
**ZARAUZ**



[www.biyona.net](http://www.biyona.net)

**iturgintza airo girotua**

**igeltseritza etxeko altzariak**

**arotzeria sukaldeko altzariak**

**gremioen koordinazioa bainugelak-zeramika**

**gasa-berogailuak**

